



EUSKAL HERRIKO *Natura*

6€
153
ZENBAKIA

2025 URTARRILA-OTSAILA



Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundua

- BISONTE EUOPARRA
- MENDIKO GORILA
- GIBOI ARRUNTA
- HARTZ ARREA
- GAMELUA
- ERRINOZERO BELTZA
- JAGUARRA
- GAMELUA
- BONOBOA
- DRILLA
- JAKA



- GIBOI ARRUNTA
- HARTZ ZURIA
- AIE-AIEA

MUNDUKO MEHATXATUTAKO ANIMALIAK

ESPECIES EXÓTICAS INVASORAS-ESPEZIE EXOTIKO INBADITZAILEAK
HORIEN SARTZEA EKIDIN!



Bisoi amerikarra



Panparen lumaduna



Floridako dortoka



Karramarro gorria



Liztor asiarra

araba álava
foru alundia diputación foral

ESPEZIE EXOTIKO INBADITZAILEEN HEDAPENA ARRISKUTSUA
DA BIODIBERTSITATEARENTZAT. EZ SARTU



EUSKAL HERRIKO
NATURA

DESAGERTZEKO ZORIAN DAUDEN ESPEZIEAK DEFENDATZEKO ELKARTEA

EUSKO JAURLARITZA

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

ZURE NATUR ETA ZOOLOGIA
ALDIZKARIA

AURKIBIDEA

153.zk - 2025 URTARRILA-OTSAILA



Munduko Mehatxatutako Animaliak

Aie-Aiea.....	4
Orangutana.....	5
Bonoboa.....	6
Mendiko gorila.....	7
Urre-koloreko lehoi tamarinoa.....	8
Drilla.....	10
Giboi arrunta.....	11
Verreaux sifaka.....	12
Zurda duen otsoa.....	13
Afrikako txakur ehiztarra.....	14
Hiena arrea.....	15
Hartz arrea.....	17
Azeri artikoa.....	18
Hartz zuria.....	20
Haragijale eta belarjalea.....	21
Panda erraldoia.....	22



Igaraba erraldoia.....	24
Elefante asiarra.....	25
Elefante afrikarra.....	26
Hamazortzi ordu janez.....	27
Errinozero beltza.....	28
Indiako errinozeroa.....	30
Java uharteko errinozeroa.....	32
Sumatrako errinozeroa.....	33
Mongoliako zaldi basatia.....	34
Gazte bahitzaileak.....	35
Mendiko zebra.....	36



Mendiko tapirra.....	38
Asiako tapirra.....	39
Iparraldeko tapirra.....	40
Hipopotamo pigmeoa.....	41
Arabiako orixa.....	42
Gamelua.....	43
Jaka.....	45
Bisonte europarra.....	46
Bengalako tigrea.....	47
Ile motzeko felido dotorea.....	49
Jaguarra.....	50



EUSKAL HERRIKO
NATURA

Zuzendaria: Fernando Pedro Pérez.
Erredakzioburua: Ruben B. Caballero.
Kolaboratzaileak: Nerea Urtaran, Miren Alustiza, Oskar Azkona, Jon Lopez.
Kepa Murua, Jon Zubiri, Elena Azkarreta, Xabier Aramburu, Kepa Alustiza.
Argazkilari-taldea: Edurne Urkizu, Aitor Zubizarreta, Xabier Urreta, Izaskun Loidi.
Maketatzailea: Cristina Urionaberrenetxea.
Legezko gordailua: BI-2452-02.
ISSN: 1695-4645 Aleak: 2.000

Erredakzioa:
Av. Madariaga, nº. 47-6º C - Esc.1 - 48014 BILBAO.
Tel: (94) 4 75 28 83. e-maila: adeve1991@gmail.com


Argitaratzailea:
Iraungitzeko Zorian Dauden Espezieak
Defendatzeko Elkarte.

EHAA-1996ko otsailak 7, asteazkena.
3/1996 DEKRETUA, urtarrilaren 9koa, Elkarte
herri-onurakoa dela aintzatesten duena.



HARPIDETZA-ORRIA

Urteko kuota: Hamabi ale urtean: 36 euro. TLF: 94 475 28 83



Tamaina: gorputzak eta buruak 36-40 cm artean neurtzen dute. Buztana 50-60 cm artean dago.
Pisua: 20-23kg
Habitata: oihanak, mangladiak, eta banbudiak.
Banaketa: antzinean, Madagaskarko ekialdea eta iparmendebaldea, Nosy Mangabé-ko uhartea (Madagaskarko iparrekiadela).




AIE-AIEA
(DAUBENTONIA MADAGASCARIENSIS)

Primaterik bitxiena da aie-aiea: bai itxuragatik, bai ohiturgatik ere. Saguzarraren belarri handiek eta begi distiratsuek animalia honi itxura espektroa ematen diote. Bestetik, bere ebakortz handiek egur trinko eta sendoa zizailatzen uzten diote, eta buztan iletsuak katagorriaren antza ematen dio -joatean, bizkarraren gainean makurtua darama-. Aie-aie aleen murrizketaren kausa nagusia ekialdeko uhartee-tako oihanen deforestazioa da. Gaur egun, populazio gutxi batzuek bizirik jarraitzen dute, baina murrizturik eta bakarturik, Mantady-ko, Montagne d'Ambre-ko, Venezanantsoro-ko eta Ranomafana-ko Parke Nazionaletan, batez ere. Erreserba batzuetan, kolonia txikietan -gatibualdian- daude,

eta hazkuntza-programak egiten dituzte basoko ingurunera berriro animalia hauek sar daitezen. 1967. urtean, ale batzuk harrapatu zituzten eta Nosy Mangabé irlan aske utzi zituzten. Hantxe bizi den populazioa zeharo babesturik dago, izan ere, Madagaskarko gobernuak, Petter senar-emazteak sustatuta, Erreserba integralatzat hartu zuen. 1985. urtean, Madagaskarko ekialdeko erdialdean -900-1000 m-ko altuerara-, beste populazio txiki bat aurkitu zuten. Gaur egun, UICN-ek arriskuan dauden espezieztat hartu du, eta bere biziraupena mehatxatzen duena basoko habitat egokiarren galtzea da (giza parte-hartzeagatik).

Aie-aieak ohitura gautarrak ditu. Egunean, baso trinkoetako edozein zuhaitz handitan egindako habian lo egiten du. Egunsentian, aie-aieak bere habia uzten du elikatzeke. Baina egunsentiaren lehenengo argiak agertu bezain laster, itzultzen da babesteko. Iluntzean, zuhaitzetako adarretatik bizkor mugitzen da lau hankatan. Basoko lurzorutik ere noraezean dabil, baina bere ibilkera baldarragoa da, izan ere, hatzak altxatzen ditu lurzoru ez ikutzeko. Bere erpeei esker, enborrei eta adar finuagoei heltzen die, batzuetan ahoz behera zintzilikatutik geratzen da. Enbor bertikaletara igotzeko, saltotxo azkarrak ematen ditu. Bere oinarritzko elikadura, fruituak eta intsektuen larbak dira. Dirudienez, aie-aiek adi entzuten dute larba xilofagoen zarata (normalean, deskonposizioan dauden egurretan daude). Aie-aiek bere hirugarren hatza erabiltzen du gauza askotarako, esaterako, garbitzeko, hazka egiteko, orrazteko, eta kokoetatik zukua eta pulpa ateratzeko. Horretarako, sorbalda alakatuetako ebakortzak -aurrerantz makurturik- erabiltzen ditu. Bere ebakortzek, primateen artean, kasu bakarra eratzen dute: karraskarien hortzei gertatzen zaien bezala, eten gabe hazten dira, eta honek esan nahi du, higadura handia jasaten dutela.



Tamaina: gorputzak eta buruak 70-90 cm artean neurtzen dute. Bere altuera 120-150 cm artean dago.
Pisua: arrek 50-90 kg artean pisatzen dute. Emeek 30-50 kg artean daude, (gatibualdian, emeek 56 kg inguru pisatzen dute eta arrak 144kg-ko pisura izatera ailega daitezke baina ale batzuk 200kg arte ailega daitezke).
Habitata: mendiko eta goi-lautadako baso hodeitsuak (1500 m-ko altitudera arte), baita baso zingiratsuak ere.
Banaketa: Sumatrako iparalde, eta Borneoko beheko alde

hodeitsuetaraino (Borneo eta Sumatra). Bere ohiturak egunekoak dira; gauez, berriz, egindako habia handiaren gainean edo oholtzaren gainean lo egiten du, normalean berak apurtzen dituen adar makurtuak erabiliz. Fruitujalea da, eta bere dietan hainbat basoko piku (*Ficus fruituak*) daude. Bere trebetasuna fruituak aurkitzeko izugarria da. Hainbat piku-espezie urtean zehar heltzen direnez, orangutanek mugimendu asko egin behar dituzte beren bila joateko. Beste landare batzuk, intsektuak, ornogabe txikiak eta hegaztien arrautzak ere jaten dituzte. Izugarritzko dimorfismo sexuala du: arraren pisua bi aldiz emearena da, eta masailetan dituen zuntz-ehunezko tolesturek bere aurpegia oso dilatatzeko dute. Bestetik, izugarritzko laringezakua du, baita ilaje luzea ere; horri esker, bere lurraldea inbaditzen duten beste arren norgehiagokek ikusgarritasun handia dute. Orangutanak bakarrik edo talde oso txikietan bizi dira. Dena den, alde berdina aleek lagunarteko harremana mantentzen dute, batzuetan denborazko taldeak osatuz. Ar helduen lurraldeak emeenak baino handiagoak dira eta beste arrekin kontrakoak dira. Nahiz eta ar helduen harremanak noizbehinkakoak izan, beti erasoak dira edo gu-txienez errefusa. Eme hel-




ORANGUTANA
(PONGO PYGMAEUS)

Orangutana oso ondo moldatzen da oihanean. Hainbat baso primariotatik ikus daiteke, itsasoko baso zingiratsuetatik (Borneo) 1.500 metroko altuerako baso

duak, berriz, batera elkartzen dira: bi edo hiru egunez elkarrekin bidaiatzen edo jaten dute. Indibiduo gazteek haien artean edo heldu ba-tzuekin harremanak ezartzen dituzte. Emeek pribilegioa dute bikote sexuala aukeratzeko; emeek ez dute arraren monopoliorik nahi, baina sarritan bortxaketak gertatzen dira. Pleistozenotik, bere banaketa-aldea murrizten ari da gehiegizko ehizatagatik eta ingurumen-degradazioagatik. 30eko hamarkadan, Sumatran, bere banaketa-aldearen %20-%30 bakarrik osatzen du, eta gaur egun uharteko iparraldean bakarrik dago. Agian, orangutanaren jazarpena gizakion antzagatik izan zitekeen eta auzoko tribuen artean ehizarako alternatibatzat hartzen zuten. Orangutanaren populazioen gainbeheraren kausa nagusietako bat animalia gazteen harrapaketa izan da, zirkuetan eta zoologikoetan erakusketak egiteko. Horretarako beti ama hiltzen zuten.



Duela urte batzuk, Indonesian eta Malaysian espezie hau legalki babestua dago, eta dagoen trafikotik ia guztiz ilegala da. Gaur egun, arazorik nagusiena deforestazioa da, izan ere, orangutana guztiz basokoa da eta zuhaitzik ez egotekotan hiltzen da. Sumatran eta Borneon egin zituzten azken erroldoen arabera, 12.300-20.570 ale artean daude, 24.000 km²-etan banaturik. Egun, espeziearene babesarako eta ikasterako hiru zentru daude: Sepilok-eko Errehabilitazio-Zentrua (Sabah), Tanjung Puting-eko Errehabilitazio-Zentrua -Tanjung Puting-eko Parke Nazionalan (Kalimantán)- eta Bohoroko Errehabilitazio-Zentrua, -Gurung-eko Parke Nazionalan (Sumatra)-.



Tamaina: 80 cm-ko altuera.
Altuera: 74-87 cm artean dago, gurutzean.
Pisua: 60 kg arte
Habitata: baso hezeak.

Arunk, txinpantze pigmeoa esaten diote, eta orain dela gutxi arte, txinpantze-subespezietzat hartuta, bonoboa primate interesgarrienetarikoa bat da ikertzaileentzat. Familiako taldetan bizi da (30-50 ale artean), basotik noraezean dabilta elikagaien bila: fruitak eta intsektuak, batez ere. Habiak eraikitzen dituzte gaez lo egiteko.

Beren ezaugarrien artean, nagusienetarikoa bat jarrera bipedoa da, baita hainbat tresnaren erabilpena ere. Primateen artean, aurrez aurre kopulatzen den kasik bakarra da, gainera hizkuntza eta hizkera egiteko gaitasun handia du. Ezaugarri hauek guztiek, bai morfologikoek bai etologikoek, espezie garrantzitsuenetarikoa bat bihurtzen dute animalia-eta giza-portaeraren ikasketaren ikuspegitik, batez ere psikologia eta soziologia konparatuaren eremuetan.

Gaur egun, beren populazioa 5.000 ale inguru dela kalkulatzen da. Kongo ibai-




BONOBOA

(PAN PANISCUS)



ko alde oso zehatzetan daude. Baina beren biziraupena beti mehatxatua dago: ezkutuko ehiztarien presioagatik ez ezik, Afrikako Erdiko Errepublika hondatzen duten gerren presioagatik ere. Espeziearen jaiotza-tasa murriztua faktore oso garrantzitsua da, izan ere, horrek populazio ahulari berreskuratzeko azkarra galarazten dio.

Lomako eta Wambako basoetan bizi diren populazioak oso ondo ikasiak izan dira, non betidanik bonoboek eta gizonek harreman berezia eduki duten. Wambako herriaren tradizioaren arabera, iragan urrun batean bonoboa eta gizona anaia izan ziren, horregatik haien artean begirune handia dute, eta honek bonoboen populazioak luzaroan irautea uzten du alde horretan.



Tamaina: altuera -jarrera tente batean-, 125-180 cm artean. Arraren batezbesteko altuera, 170 cm, eta emearena, 150cm.
Pisua: emeek 70-140 kg artean pisatzen dute, arrek 135-275 kg artean. Gatibualdian egon ziren arren artean, 350 kg arte erregratuak izan dira.
Habitata: baso hodeitsuak (1650-3790 m-ko altitudera), banbu basoak (2500-300 m artean).
Banaketak: Kongo, Uganda eta Ruanda.



MENDIKO GORILA

(GORILLA BERINGEI)

1902. urtean, Oskar Von Beringek, Muhavura-ko sumendia-
ren mendi-mazeletan, mendiko gorila aurkitu zuen, eta 1903. urtean, Alemanian, Martschek deskribatu zuen. Animalia horren ilea mendebaldeko lurretako gorilarena baino luzeagoa eta beltzagoa da, bere iratzargia ere handiagoa da, masailazurrak potoloagoak, besoak motzagoak, gandar sagitala nabariagoa, eta sudur-zuloak dilatatuagoak dira. Animalia horrek eguneko ohiturak ditu: goizeko seietan ekin-tzak hasten ditu eta arratsaldeko seietan bukatzen ditu. Bere oinarritzko egitura soziala harenean datza. Ar menperatzailea oso erraz ikusten da, izan ere, bere zilar-koloreko bizkarra eta izugarritzko tamaina ditu, taldeko nagusi ukalezina baita. Kumeak dituzten emeak inoiz ez dira urruntzen berarengandik. Kumerik ez duten emeak eta ar subhelduak urrunago man-

tentzen dira, baina inoiz ez daude nagusiaren eraginatik at. Kume txikiak beti ar handiaren babesaren menpe geratzen dira. Bere babesa haientzat beharrezkoa da, izan ere, kumeen heriotza-tasaren laurdena aurkako arrekin sortzen dute. Batzuetan, bi edo lau zilar-koloreko gorila bizi dira elkarrekin, baina beti gorila batek besteak menperatzen ditu (litekeena da bere semeak izatea). Heldutasuna lortzean, arrek taldea bertan behera uzten dute, eta bakarrik bidaia egiten dute, sarritan urte batzuetan zehar, beste taldetako emeak hartu arte eta beren harena eragiten dute. Ez da zaila harena berria egitea, izan ere, emeak pubertaroara heltzen direnean, betiko taldea bertan behera uzten dute beste talde bati lotzeko. Ondorioz, harengo eme helduek haien artean ez dute ahidetasunik, eta normalean harremanik ez dute hartzen. Ar menperatzaileak

eta bere emeak duten harremanak, taldearen kohesioa mantentzen dute.

Populazio egonkorretan, heldutasunik gabeko kumeen heriotza-tasa %42 da, honek esan nahi du, emearen bizitza ugaltzailearen sei edo zortzi urte bakoitzetik kume bat besterik ez duela bizirik irauten. 1967. urtean Karisoke Ikertketa Zentrua sortu zen, eta horrek espezie honen ikerketari eta babesari ekin zion. Hemen, Dian Fossey AEBko ikertzaileak, bere ikerketa-lana egin zuen. 1990. urte-tik, Mendiko Gorilaren proiektua egiten ari da, Fauna & Flora International Elkarteak eta African Wildlife Foundationek zuzentzen dute. Gaur egun, Gorilaren Kontserbaziorako Nazioarteko Programan integratua dago.

CITES-ek Lehen Gehigarrian sartu du eta UICN-ek arriskuan dagoen espezie-tzat hartuta.





Tamaina: bere gorputzak (buruarekin), 20-34 cm artean neurtzen du. Buztana, 31-40 cm artean dago.
Pisua: 600-800gr.
Habitata: lehenego publioiana, baita bigarrena eta partzialki landuta dauden aldeetan ere.
Banaketa: Sao Joao ibaiko arroan, Rio de Janeiroko estatuan (Brasil).



URRE-KOLOREKO LEHOI TAMARINOA (LEONTOPITHECUS ROSALIA)


Amerikako primaterik zaharrenak dira tamarinoak. Hauek ilaje zetadunak, mototsak, biboteak eta gandor mota asko dituzte. *Callitrichidae* familiakoak dira. Familia hori 21 espeziez osatuta dago, hauetatik zortzi espezie titiak dira. Titia Amerikako oihan tropikaletatik datoz, urtxintxen antza dute, eta primateen artean oso itxura bitxiak dituzte. Esate baterako, ugalketa-sistema monogamoa dute, sexuen arteko desberdintasun gutxiarekin, erditze anizkunak -jeneralki bikiak-, eta aitak eta talde sozialak kumeak zaintzen dituzte. Talde hauetan 15 indibiduo artean egon daitezke, bikotez eta bere ondorengoz osatuta. Goeldi-ko tamarinoa izan ezik (*Callimico goeldi*), besteak txikiagoak dira. Erpeak modifikatuta dituzte -hatz guztietan azazkalak eduki beharrean, oineko erpurua izan ezik-,

masailezurreko albo banatan bi molar dituzte, hiru molar eduki beharrean, eta bukatzeko, bikien erditzeak edukitzeko joera dute. Hortaz, argi dago hauek Mundu Berriko tximinoetatik desberdintzen direla. Honi gehitu behar diogu utero bakuna dutela eta goiko molarren gainean ez dutela atzeko gailurrik. Horregatik pentsatzen da tamarinoak primate aurretatuak direla eta eboluzioaren prozesuan tamaina murriztu dutela, dieta intsektujale batera moldatzeko. Primaterik mehatxatuenetariko bat da Brasilgo urre-koloreko tamarinoa (*Leontopithecus rosalia rosalia*). Baina beste bi

espezie gehiago ere egoera berdinean daude: urre-koloreko zerra duen tamarinoa (*Leontopithecus chrysopygus*) eta urre-koloreko burua duen urre-koloreko tamarinoa (*Leontopithecus chrysomelas*). Hiru subespezieak Brasilgo ekialdeko eskualde atlantikoko oihanetako azken gordeleketan bizi dira. Eskualde hau herrialdeko lehenengo kolonizatutako alde izan zen, duela 400 urte baino gehiago, eta gaur egun eskualderik populatuena da. Urrer-koloreko lehoi tamarinoa beti altuera txikiko kostaldeko eskualdeetan egoten da (300 metroko altueraren azpitik),



Rio de Janeiron eta Espiritu Santoko estatuan. Alde tropikalean, baso baxuenak eta larreak dira lehenengoak desagertzen. 70eko hamarkadaren hasieran, Rio de Janeiron halako habitatak desagertzen hasi ziren. Gainera, zubi bat egin zuten hiri hominimoa Niteió hiriarekin lotzeko, eta badiaren bidez alde hauetara ibilbidea erraztu zen. Arazo horri beste arazo batzuk gehitu zitzaizkion, esaterako, tamarino bizien harrapaketa, konpainia-animatizat erabiltzeko edo zooetan erakusteko. 1960ko hamarkadan, ehunka titi ilegalki esportatu zituzten, eta 70eko hamarkadan, are gehiago, izan ere, nazioarteko neurri babesleak hartu ziren. Gaur egun, jadanik merkataritza honek bizirik jarraitzen du, batez ere, herrialdeko ekialdeko toki-merkataritzaren eskaerak asetzeko. Baina beste keinadura bat gehitzen da: Rio de Janeiroko populazioak batzuetan tamarinoa jaten du -bai, animalia honen erabilera penagarria dela-. Askatasun-egoeran tamarino gutxi daude. Brasileko eta Ipamerikako talde baten arabera, eta World Wildlife Fund-Us Primate Program-aren arabera, bi



aldetan bakarrik tamarinoen populazioak daude: Sao Joao ibaiaren bokaleko hegoaldeko kostaldean eta Poco d'Anta Erreserba Biologikoa osatzen duten 5000 hektareatan. Azken hau 1974. urtean sortu zen, espezie hau babesteko. Lehengoarekin, jadanik partzelak egin dituzte hondartzaren aurrean urbanizazioak egiteko. Poco d'Antako egoera ez da ona, izan ere, tamarinoen populazioa txikia da: 60-100 ale inguru. 80ko hamarkadaren amaieratik, Rio de Janeiroko Primateen Zentroak, Brasileko Baso Garapenaren Institutoak (erreserba administratzen duena), Washingongo Zooak eta World Wildlife Fund-ek programa bat martxan jarri zuten. Bere helburua da alde honetako urre-koloreko tamarinoen ekologiar eta dinamika buruzko datu zehatzak lortzea, basoko habitata berreskuratzea, eta beste erreserbako alde batzuetan espezie hau sartzea. Adituek diote programa hau modu zorrotz batez bete behar dela. Zorionez, espeziea gatiabaldian ondo dagoela ematen du.





Tamaina: bere gorputzak (burua rekin), 61-76 cm artean neurtzen du. Buztanak 12 cm neurtzen du.

Pisua: arrek 25 kg pisatzen dute, emeek, berriz, 11-15 kg.

Habitata: plubioihan dentsoa.

Banaketa: Sanaga ibaiko iparraldera (Kamerun). Fernando Pooren irla (Bioko).

Zerkopitezido gehienak bezala, drilla eguneko animalia da. Oihaneko lur-zoruan dabil, fruituak, intxaurrak, perretxikoak eta batzuetan ornogabe txikiak bilatzeko. Sarritan, adarren edo harrien azpian begiratzten dute azpian dauden animaliak ehizatzeke. Agian mandrilek tamaina handiko animaliak ehizatzen dituzte, "duikers" (*Cephalophus*) eta



beste ungulatuen kume batzuk bezala. Dena den, taxonomikoki hurbil dauden mandrilen artean ohitura hori ikusita izan da.

Naturan, bai drillak bai mandrilak geografia-eremu murriztuak betetzen dituzte -drilla bereziki-, eta honek espeziearen kalte-beratasuna handitzen du. Honi gehitu behar diogu aleak dristikoki murrizten ari direla -gehiegizko ehizagatik eta habitataren degradazioagatik-.

Gaur egun, espezie honen populazioa 3000 ale inguru da. Ehiztarien etengabeko pertsekuzioak eta drillen jaiotza-tasa txikiak desagertzera eramaten dituzte, -erremediorik ez jartze-kotan-.

Nazioarteko Fauna eta Flora Erakundea drillen ugalketarako eta errehabilitazioarako programa bat garatzen ari da Nigerian. Han, gurasorik gabeko ale gazteekin lan egiten dute. Gainera, zuhaitz-espezieak erabiltzen dituzten basoberritzelane ez dute balio drillentzat, ezin dituztelako jan (adibidez, eukaliptoak), horregatik mehatxu nagusienetariko bat da bere jatorrizko habitataren desagertzea.

UICNk "arriskuan dagoen espezie" hartzen du bere Zerrenda Gorrian (2022. urtean argitaratua).

DRILLA (PAPIO LEUCOPHAEOUS)



Tamaina: bere gorputzak (buruarekin), 44-46 cm artean neurtzen du.

Pisua: 4-8 kg artean pisatzen du.

Habitata: Asiako hego-ekialdeko Montzoi-baso kaduzifolioak eta plubioihan iraunkorrak.

Banaketa: Myanmarren eta Yunnango Txinako estatuaren mugan. Thailandian, Malaysian eta Sumatrako iparraldean.

11 giboi-espezie daude, denak Hylobates generokoak dira; ezagunenak dira: giboi beltza, hoolock, tre-bea eta arrunta. Denak besarkademale espezializatuak dira. Giboi arrunta arinena da, eta egunero distantzia handiak egiten ditu. Bere artikulazioak malguak dira, eta bere beso luzeek eta esku oratzaileek lianen artean ibiltzen uzten diote erraztasunez. Salto bakar baten bidez, 12 metroko oztopoak gaindi ditzake, eta hurrengo adarra hartzean, helburua alda dezake adarra ia ukitu gabe. Haizean kulunkatzen den bitartean, fruituak edo edozein botatako objektu hartzeko gai da. Libre dagoenean, hegaztiak ere har ditzake (nahiz eta

GIBOI ARRUNTA (HYLOBATES LAR)



hegan egiten egon). Bere besoak oso gogorrak dira, eta bere gorputzaren pisua baino hamabost aldiz gehiago mugitzeko gai da. Giboi arruntaren lurraldea beste gibonen lurraldea baino handiagoa da proportzionalki, eta kontaktu fisikoa behar du lurraldearen defentsa egiteko: talde familiarra bere lurraldean zehar ibili ohi da eta soinua botatzen du edo bere keinuaren erakustaldia egiten du, kanpotarrak botatzeko. Batzuetan, batzuk besteen urrun daudenean, bokalizazio zaratsuak botatzen dituzte. Bokalizazio hauek kilometro batzuetara ere entzun daitezke.

Giboiaren populazioek galera asko pairatu dituzte: demografia-gehitzea, ehiza, basoko habitataren hondamena... Nahiz eta espezie

batzuek ale asko eduki, horrela jarraitzekotan -ehizarekin, deforestazioarekin, eta abarrekin- urte gutxi barru, egoera oso larria izango da eta 20 edo 30 urte barru gaur egungo giboi-populazioen %80-%90 desagertuko dira, eta espezie batzuk desagertuko dira, esate baterako, Klossen giboia (*H. klossi*), gandor beltza duen giboia (*H. pileatus*) eta giboi beltza (*H. concolor*). Malaysian, adibidez, deforestazioak 31.000 giboi arruntan eta arinen desagertzea eragiten du urtero. Giboi-espezie guztiak CITESeko Lehengo Gehigarrian daude. Klossen eta gandor beltza duen giboia espezie kalteberatza hartzen ditu UICNk, zilarreztatua (*H. moloch*), berriz, egoera kritikoa dagoen espezie hartuta dago eta Zerrenda Gorrian sartuta dago (2022. urtean).





Tamaina: bere gorputzak (buruarekin), 39-48 cm artean neurtzen du. Buztana, 50-60 cm artean dabil.
Pisua: 3'5-4'3 kg artean pisatzen du.
Habitata: baso hostoerorkor.
Banaketa: Madagaskarko hegoaldea eta mendebaldea.

VERREAUX SIFAKA

(PROPILECUS VERREAUXI)




Verreauxen Sifaka indridoa da, beraz, prosimio handia, egunekoa eta belarjalea. Propithecus generoak beste bi subespezie osatzen ditu: diadema-sifaka (*P. diadema*), Madagaskarreko ekialdeko hosto iraunkorreko basoetan bizi dena, eta urre-koloreko koroa duen sifaka edo Tattersallena (*P. tattersalli*). Zuhaitz-erako animalia da. Ibiltzeko orduan, salto handiak emanez mugitzen da adar bertikalen eta enborren artean. Bere atzeko hanken indarrak izugarritzko saltoak (10 m-ra arte) egiteko aukera ematen dio. Noizean behin, lurzorura joaten da, eroritako enborraren azala jateko. Orduan, hankabiko kokapena hartzen du eta saltoka dabil besoak gorantz eramanez, oreka mantentzeko. Eskuak eta oinak oso ondo moldaturik daude bizitza arborikolarako. Bere salto bakoitzaren azkenean, bere eskuak adar malguenei heltzen diete. Saltoa egitean, gor-



putza erdi-tente mantentzen dute eta buzтана erabiltzen dute oreka mantentzeko. Sifaka-taldeak konpaktuak dira eta kide guztiak ororen begien bistan daude. Hazkuntza-garaian, borroka asko daude, batzuetan zauri larriekin. Momentu honetan taldearen estruktura apurtzen da, arrak noraezean ibiltzen hasi direlako eta haien artean borrokatzen dutelako emeak lortzeko. Emeek ar menperatzaileekin bakarrik ugaltzen dute edo momentu horretan baldintza hori dutenekin.

UICN-ek "espezie kaltebera" gisa sailkatzen du bere Zerrenda Gorrian (2022. urtean argitaratua), eta CITES-eko Lehengo Gehigarrian sartuta dago. Bestalde, AEBaren Herrizaingo Sailak "mehatxatutako animalia-tzat" hartzen du. UICNek "arriak" dagoen espezie-tzat hartzen du diadema-sifaka, eta Tattersallen sifaka "egoera larrian" dagoen espezie-tzat sailkatuta dago, izan ere, ale gutxi daude eta beren populazioek joera errezesiboa erakusten dute.



Tamaina: bere gorputza (buruarekin) 105-132 cm artean dago. Buztanak, 28-45cm du.
Altuera: 74-87 cm artean dago, gurutzearan.
Pisua: 20-23kg
Habitata: belardietan, sabanetan, baso beretako mendietan eta alde zingiratsuetan bizi da.
Banaketa: ekialdeko Brasil eta alde mendebaldea, Boliviako ekialdea, Paraguai, Argentinako iparralde, Peruko hegoekialdea, eta posible izan daiteke Kolonbiako zelaietan populazio disjuntua egotea.

Zurda duen otsoaren izena, bere bizkarren gainean daraman ile beltzetako zurda tentekorratig datorkio, baita otsoaren tamainaren antzekotasunagatik ere. Baina ez da benetako otsoa. Bizitza-palustrea egiteko moldaketa da bere oinetako kuxinak albokoki hedatzeko gai izatea, horretarako kuxinak bere erdiko aldean loturik daude.

Zurda duen otsoa ez da kanidoa oso azkarra. Ez du distantzia handirik egiten bere harrapakinen bila; orokorrean, zelatan ehitatu ohi du. Bere elikadura orojalea da: karraskariak, beste ugaltun txiki batzuk, hegaztiak, narrastiak, anfibioak, arrainak, intsektuak eta fruituak.

Ehizaren teknika bitxia erabiltzen du: karraskarien bila joateko, hankak erabili ordez, hortzak darabiltza zulatzeko. Bere ohiturak gautarrak eta egunsentiarak dira, baina egunez ere ikus daiteke, gizonek kutsatu ez dituzten aldeetan bakarrik.

Monogamia da eta bikote bakoitzak bere lurraldea babesten du (27 km2 inguru). Dena den, ia bere bizitza gehiena bakartia dabil, izan ere, emea eta arra ugalketa-garaian bakarrik elkartzen dira.

Sabanako beste haragijaleek bezala, zurda duen otsoak urrutiko komunikazio-metodo batzuk garatu ditu. Haietariko bat zurda tentekorrean datza: otsoak harrokeriaz albo bat erakusten du, bizkarra makurtuz eta burua jira eginez, bere eztarrian eta belarrietan dituen zuri-koloreko orbanak erakusteko. Beste metodo bat, zaunka sakon batean datza, bera urrutitik entzun daiteke.

ZURDA DUEN OTSOA

(CHRYSOCTON BRACHYRUS)



Emaldiak bi hilabete luze dirau. Hori gertatu ondoren, emeak bi, hiru edo lau kumez erditzen da -normalean bi-. Zortzi edo bederatzia eguneko kumeek begiak irekitzen dituzte. Beren ilajea gris-nabar iluna da eta behin betiko ileak ez dituzte garatuko hiru edo lau hilabete bete arte. Lau astetan, ahoan zehar botatuko elikagaia jateari ekiten diote eta hamabost astean, titia kentzea gertatuko da.

Alde batzuetan otsoa jarraitua da, izan ere, eskortetan hondamendiak egiten ditu, baina hori bidegabeko ideia da. Sarritan, gaixotasun batzuk jasaten ditu, hainbatetan batzuek heriotzara eramaten dute. Larrien artean, giltzurruneko gai-

xotasuna dago; zizareak edo nematodo erraldoiak eragiten du (*Dictophyme renale*). Brasilen pentsatzen da, bere gorputzaren zati batzuek botere sendagarriak edo magikoak dituztela. Hau dela kausa, eta bere habitat belarkararen aldizkako erreketak, bere kopurua zorrozki gutxitzen doa. UICN-ek "arriku txikian dagoen espezie-tzat" hartzen du eta CITES-ek Bigarren Gehigarrean sartzen du. Dena den, nahiz eta beste leku batzuetan bere populazioak oso kaltetuta geratu, bere banaketa-aldea Brasilgo ekialdetik hedatzea lortu du.



Tamaina: gorputzak eta buruak 76-112 cm artean neurtzen dute. Buztana 30-41 cm artean dago. Eta bere altuera, gurutzean, 61-78 cm artean dago.

Pisua: 17-36 kg artean pisatzen du.

Habitata: semibasamortutik Alpeetako lukueta raino. Gehien gustatzen zaion habitata, sabana arboladia da.

Banaketa: Saharako hegoalde-
ra, baina hemen populazioak oso
hedaturik daude. Erdiko Afrikako
populazioa iparralderantz doa
(Saharan).



menperatzaileek men-
pekoen ugalketa errepi-
mitzen dute-, txakur
ehiztariak sedentarioa-
goak bihurtzen dira.
Orikteropo baten gorde-
lekua erabiltzen dute bi
edo hiru hilabetez eta
ehizarako lurraldeak
drastikoki murrizten dira.
Bestetik, animalia horien
lurraldetasuna ez da oso
handia ematen du:



duela urte asko, Hego Afrikan, gazela saltokarien samalda handiak ikusi ahal izaten zirenean, ehunka txakur ehiztariaren denbora-kongregazioak ikus zitezkeen. Beren estruktura soziala oso korapilatsua eta konplexua da. Alde bate-
tik, txakur-taldeetan arren propor-
tzioa emeena baino askoz handia-
goa da, normalean bikoitza, baina
batzuetan, zortzi ar eta eme bakarra
izan daitezke, eta hau oso bitxia da
ugaztun sozialen artean. Bestetik,
beste ugaztunetan ez bezala, migra-
zioa egiteko orduan, emeen propor-
tzioa arrena baino handiagoa da.
Arrek, gazteen hazkuntzan eta elika-
duran, rol nagusia dute, dirudenez,
hori gertatzen da sexuen arteko
paper-inbertsioagatik. Hazkuntzaren
alde nagusia da gazteei ehizatzen
irakastea, izan ere, azken ikerketen
arabera, taldeko ehizarako teknika
gehienak ez dira berezkoak, eskura-

AFRIKAKO TXAKUR EHIZTARIA

(LYCAON PICTUS)

tuak baino.

Lycaon-en ernaldia 70-80 egun artean dabil eta 6-16 kume izatera irits daiteke baina batez bestekoa hamar kumetan dago. Hamahiru eguneko kumeak direnean, begiak irekitzen dituzte eta hiru astetan gordelekutik ateratzen dira eta hainbat elikagai solido jaten hasten dira. Hamaika astetan titia kentzea gertatzen da. Txakur-taldeko kide guztiek janaria ahoan zehar botako dute kumeei elikatzeko. Taldea ehizara joaten denean, heldu bat edo bi gordelekuan geratzen dira, kumeak zaintzeko. Hiru hilabeteko kumeak harrapakin errazak hiltzeko gai dira eta hamabi edo hogeita lau hilabete artean inoren laguntzarik gabe bizitzeko gai dira.

Taldeka ehizan ibiltzen dira, harrapakin txikiak direnean izan ezik (erbiak, karraskariak, dik-diksak). Harrapakina ikusi ondoren, normalean ikusmena erabiliz, isilka hurbiltzen dira, eta ehizakiak korrika egiten hasten direnean -ekintza hori detonatzaila dela ematen du- likaonak beren bila doaz, 60 km/h-ko abiaduraz baino gehiagorekin, horrela 10-60 minutu artean mantentzeko gai dira. Ez dago beste unglaturik hori egiteko gai denik. Ehizarako sistema kooperatiboari esker, Afrikako txakur ehiztaria harra-
paria eraginkorra da. Sarritan, ahaleginen %70ak eta batzuetan %85ek arrakasta lortzen dute. Harrapakina ikuste-
tik animalia bera harrapatzerako ordu bat igarotzen dute.

Gaur egun, 5000 ale inguru daude, gehienak Afrikako ekialdean eta hegoaldean. Aurre egiten duten arazo nagusietako bat da beren populazioen zatiketa, izan ere, modu horretan aldakortasun genetikoaren galtzea nabarmena da. 1990. urte-



an, UICNk espeziearen kontserbaziorako ekintza-plana egin zuen. Horretarako, Etosha-ko Parke Nazionalan (Namibia) eta Mkomazi-tik gertu (Tanzania) espezie hori berriro sartu zuen, baina emaitza gutxi lortu zituzten. 2022. urtean, erakunde horrek Zerrenda Gorrian argitaratu zuen, arriskuan dagoen espezieetat hartuta.



Tamaina: bere gorputzak (buruarekin), 110-136 cm artean neur-tzen du. Buztana, 19-27 cm artean dago. Bere altuera, gurutzean, 64-88 cm artean dago.

Pisua: 37-48 kg artean pisatzen du.

Habitata: basoberako alde mendikatsu eta idorretan bizi da, baita sabana basotsuan, belar-dietan eta semibasamortuetan ere.

Banaketa: Namibia, Bostwana, Zimbaweko ekialdea eta hegoaldea, Mozambikeko hegoaldea eta Hegoafrika.

HIENA ARREA

(HYAENA BRUNNEA)



Hiena arrea animalia sarraskijalea da, izan ere, beste haragijale batzuek hiltzen dituzten animaliez elikatzen da. Bere digestio-aparatua moldatua dago digestio berezia egiteko: hezur-
raren materia organikoa zeharo digeri-

tzen du eta digeritzen ez den sarraskia-
ren zatikia -adarrak, apatxak, hezurra-
ren alde minerala, lotailuak eta ileak-
pila edo pikor-forman kaleratzen dira.
Hiena orbandunaren ez bezala, hiena
arreek ez dituzte ugaztun handiak era-

sotzen, horregatik ez dira arriskutsuak gizakientzat. Bere harrapakin bizen artean daude: intsektuak, karraskariak eta beste omogabe txiki batzuk. Arrautzak ere jaten ditu, eta urteko garai batzuetan fruituak eta landare batzuk jaten ditu, horien uraren kopuruarekin ur-dietaren erdia lor dezakeelarik. Populazio batzuk itsas kostaldeetara joaten dira, han fokak, karramarroak eta hildako arrainak jaten dituzte.

Espezie honek egunsentiko eta gaueko ohiturak ditu. Egunez, oihanartean, harrien artean edo lurtean zulatutako babesleku batean ezkututzen da. Alde mugatu bateko animaliak klanetan sartzen dira. Nahiz eta elikagaiak bilatzeko bakarti joan, ez dute banako lurralderik, baizik eta ehizarako bide guztiak erabiltzen dituzte. Batzuetan, eurite garaietan batez ere, klaneko bost edo sei kide biltzen dira sarraski berbera jateko.

Klan bakoitzak hezitarako erdialdeko gotorleku bat du, eta 170 km²-ko lurraldea babesten du, Kalaharin 540 km²-koa izan daiteke. Klan tipikoak ar nagusi bat, lau edo sei eme heldu eta kumeen kopuru aldakorra ditu, baina ez da sistema itxita, beti emigrazio batzuk ager daitezke, alerik gazteen artean batez ere. Eraldia haste-tik hiru hilabete pasatzera, emeak 2-5 kume artean edukiko ditu, normalean hiru. Hauek zortzi egunekoak direnean begiak irekitzen dituzte. Titia kendu arte, bularreko eme guztien artean titia ematen diete ororen gotorleku batean.

Beste haragijaleek ez bezala, hienek ez dute janaria berriro ahora ekartzen beren



kumeei elikatzeko, agian beren digestio berezia egiteko moduagatik. Kumeek hiru hilabete dituztenean, lehenengo aldiz ororen gordelekutik ateratzen dira, baina inguruan geratzen dira hamalau hilabete bete arte.

UICN-ek "arisku txikiko espezieztat" sailkatu du eta CITES-eko Lehen Gehigarrian sartzen du. Nahiz eta Botswanan babestua eta nahiko hedatua ere egon, Namibian eta Hegoafrikan bere aleak murriztu dira drastikoki. Agian, kausa nagusia izango da zuzeneko ehiza, izan ere, ganaduzaleek lehiakidetzat hartzen dute. Bere populazioaren geroko joera inork ez daki. Baina suposatzen da, orain bezala ehizatzen jarraitzen badituzte, jaisteak jarraituko duela.



Tamaina: bere gorputzak (burua-ekin), 170-280 cm artean neuritzen dute. Buztana, 6-21 cm artean dago. Bere altuera, gurutzean, 90-150 cm artean dago.

Pisua: Pirinioetako hartza: arrak 80-280 kg artean pisatzen du, emeak, 65-180kg artean pisatzen du. Yellowstoneko grizzly-hartza (AEB): 102-250 kg artean.

Alaskako Hego-ekialdeko eta inguruetako hartza (Kodiak, Admiralty): 780 kg-ra arte, antzinean 1200kg-ra arte.



Habitata: Eurasian: baso kaduzifolioak, konifero-basoak. Mundu Berrian: tundrak, Alpetako zelaiak, itsas edo ibaietako ertzeak.

Banaketa: Kantabria, Pirineoak, Alpeak, Abruzzos, Karpatoak, Eskandinaviatik Ekialdeko Siberiaraino, Siriatik imalaieraino, Ipar-Amerikako ipar-mendebaldeak.

Erdi-Aroan zehar, hartz arrea segurki Iberiar Penintsulako baserri-alde guztietan zegoen. Gaur egun geratzen dauden populazioak herri tradizionalen ondoan dabilta, izan ere, alde hauetan lurraren gizartiartea ez da oso handia. Claude Dendaletche -ekologiaren eta antropologiaren ikastunaren ustez- "hartza oihandarra eta menditarra da sekundarioki, eta basoetako erdi-erdian babesten du, gizon-emakumeen ekintzagatik". XIV. mendean, Tarifa eta Lorkako mendietan ere hartzak bazeuden, baita Madril kanpoaldean ere, baina XVIII. mendearen amaieran, Kantabriko eta Pirinioetako mendietan eta hegoalderako luzeetan ere espeziea murriztua geratu zen. Gaur egun Espainiako populazio guztia 80-90 aleren artean zifratzen da. Iberiako hartzaren patua oso zaila da, izan ere, edozein populaziok, bideragarria izateko genetikoki, gutxienez 70-90 ale behar ditu. Gordeleku nagusia Kantabrian mendikatean dago, mendebaldeko gunean batez ere, hemen 60-80 aleren artean daude (baina ekialdeko sektoreak, 20 alerekin, odolkidetasun-arazoak paira ditzake). Dena

HARTZ ARREA

(URSUS ARCTOS)



den, izugarrizko arazoak dituzte, besteak beste: errepideen zabaltze berriak, urtegien eraiketak, turismo agresiboa, deforestazioa eta antolatutako gaizkile-taldeek isileko-ehiza. Kantabrian eta Gaztela-Leonen, egitasmo zehatzak egiten ari dira espeziea berreskuratzeko. Nahiz eta hartz arren-subespezie batzuek ale asko eduki (adibidez, Kanadako mendebaldeko mendietan 50.000 ale inguru bizi dira, SESBan 100.000 ale inguru) jatorrizko banaketarik espeziearen %50 desagertua izan da. Hau dela kausa CITES-eko

Bigarren Gehigarrian sartuta dago, Lehenengo Gehigarrian, berriz, subespezie mehatxatu batzuk daude: *Ursus arctos nelsoni*, Mexikoko grizzly-hartza, Tibeteko *Ursus arctos pruinosus* eta Erdialdeko Asiako *Ursus arctos isabellinus*.



Tamaina: bere gorputzak 60 cm baino gehiago neurtzen du.
Buztanak, ordea, bakarrik 30 cm.
Pisua: 2-3 kg artean pisatzen du.
Habitata: planetako Iparraldeko eskualdeetako izotzetan bizi da.
Banaketa: Zirkulu Polar Artikoa.

AZERI ARTIKOA

(ALOPEX LAGOPUS)



Nahiz eta bere itxurak peluxe samarra-
ren antza izan, azeri artikoa planeta-
ko ingururik krudel, gogor eta ankerrene-
tan bizitzeko gai da. Azeri artikoa gure basoetako azeriekin
ahaideturik dago, baina bere eboluzioa norabide desberdinetatik
joan da. Eskualde polarretako estepa jelatueta bizirik irau-
teko, kanido horrek hainbat moldaketa egin behar izan ditu,
bere isolamendu termikoa hobetzeko. Horrela, bere gorputza
murriztu da, baita buztana, belarriak eta hankak ere. Hanken
oinazpiak ilez beteta daude, elurraren eta izotzaren gainetik ibili

dadin. Termorregulazio-mekanismo batzuen bidez, erosotasu-
nez -50°C-an egoteko gai dira, beren funtzio metabolikoak
aldatu gabe. Esperimentalki frogatu da, -80°C-an bizitzeko gai
direla.

Azeri artikoa talde nomadetetan dabil. Haiek eta hartz zuriek lotu-
ra handia dute, izan ere, neguan zehar, beren atzetik ibiltzen
dira, ehizatutako harrapakinen hondakinez elikatzeke. Dena
den, ezurteetan beren gorotzak besterik ez dituzte jaten.
Zulakari bikainak dira, zeren eta beren gordelekuak oso
luzeak baitira eta batzuetan zazpi sarrera baino gehiago
izan ditzakete, baita 100 m² arteko azalera ere.
Egiaztatu da lpar-eskualdeetan, non pizti hauek ugari
baitira, lurak landare gehiago kontserbatzen dituela.
Dirudienek, fenomeno horrek azalpen bat du: alde bate-
tik, azeriek materia organikoa hornitzen dute eta, beste-
tik, beren ekintza zulakariari esker, oxigenazioa ez ezik
lurren nahasketa ere lortzen da.

Azerikeria

Azeri guztiek egiten duten bezala, azeri artikoa gauze
bere janariaren bila doa, baina janari gutxi badago,
egun-argietan bilatuko du. Hegaztiak, arrainak, landare-
ak eta haratustela jaten ditu, baina gehien jaten duena
lemingak dira. Hori dela eta, karraskari horren popula-
zioak murrizten badira, azeri artikoa populazioak ere
murrizten dira.

Bere azerikeria liluragarria da, izan ere, batzuetan itsas-
labarraren ondoan hildakoarena egiten du; orduan itsas
hegazti jatunak hurbiltzen zaizkio mokokatzeke, une
horretan beren gainetik salto egiten du haiek klaskatze-
ke. Sarritan hondartzetatik inguruan ibiltzen da, itsas txak-
kurren gordelekuetatik, izan ere, berak badaki kume bat-
zuk beren amaren pisuaren azpian itota hiltzen direla.
Janari asko duenean, dudarik gabe, lurperatzen ditu
behar dituenetako. Hain ondo eta azkar egiten du ezen
non dagoen bere despentsa jakitea oso zaila baita. Bere
etsaien artean, arranoak, jatunak, hartzak eta gizonak

daude. Azken hauek beren populazio-
ak agortzen ari dira beren larruazal
baliotsua lortzeko.

Bere izaera oportunistari esker, eta adi-
mentsua eta orojalea izateagatik,
Lurraren lpar-eskualdeetako izotzetatik
hedatu da. Kanadatik Eurasiako ipa-
rralderaino ailegatu da, batzuetan, jito-
an zebiltzan izotzen gainean, lurralde
ezezagunetara joan da.

Bi kumaldi


Aurkako klima-egoeren arabera, aze-
rien bizitza eta zikloak aldatzen dira.
Horrela, bere araldia, azeri arruntarena
baina beranduago hasten da, apirila
eta maiatza bitartean. Agertzen diren
bikoteak, kopula egin ondoren ere, lotu-
ta mantentzen dira. Ernaldua izan
ondoren, emeak azeri-zulo bat presta-
tzen du bere kumaldiaren harrera egi-
teko. Ernaldiak ia bi hilabete irauten du,
handik aurrera, lau-hamaika kume arte-
an edukiko ditu, batzuetan hogeai arte,
janaria ugari bada. Kumeek satorren
antza dute. Jaiotzean 70 gramo inguru
pisatzen dute eta bi astean zehar
begiak itxita dituzte. Amak bere kumeei
zainketa asko ematen dizkie, baita
aitak ere. Nahiz eta amaren babesa
oso handia izan, kume gehienak bi hila-
betean hiltzen dira. Hain handia da
heriotza-tasa ezen kumaldiak jaiotetik
hilabete osoa pasatzera, bikoteek berri-
ro estaliko dute. Uztailean eta abuztuan
bigarren erditzea gertatuko da.
Kumerik gazteenak gurasoen menpe-
an egongo dira uda pasatu arte.
Kumeak nahiko handiak direnean, independentzia lortzeko,
familia banatzen da. Une horretan, gazteek erdi metroko luze-

ra dute, buztanik gabe, eta 9 kilogramo pisatzen dute.

Larruazal urdina

Azeri artikoen ilajea, urtaroen arabera,
aldatzen da. Udan marroia da eta
neguan, berriz, guztiz zuria. Kolorearen
aldaketaren mekanismoa ingurunera mol-
daketa besterik ez da, izan ere, modu
honetaz elurraren artean oharkabean
pasa daiteke. Ale batzuk, populazioaren
%1-%5 artean, udan urdin-grisaxka kolo-
rekoak dira eta neguan, berriz, urdin
argiak dira. Kanido hauei azeri urdinak
esaten diete, eta oso gutiziatuak dira
beren larruazal bitxiagatik, izan ere, mer-
kataritzan izugarritzko balioa dute.
Txikitan, harrapatuak izatekotan, oso
erraza da haiek etxekotzea. Ez dute ino-
lako zailtasunik beren jabearen atzetik
ibiltzeko, eta beti txakur-fideltasuna era-
kusten diote. Dena den, beren ingurunetik
urruntzera behartuak izango balira,
suminkorrak eta iheskorak bihurtuko lira-
teke. lpartarrak dira, izugarritzko estepa
jelidoetatik aske bizi izateko jaiotakoak.





Tamaina: bere gorputzak (burua-rekin), 250-300 cm artean neur-tzen du arretan, eta emeetan, berriz, 200-250 cm artean. Buztana, 7'6-12,7 cm artean dago. Bere altuera, gurutzean, 160 cm-koa da.

Pisua: arrek 350-650 kg artean pisatzen dute (oso gutxitan 800kg) eta emeek 150-300 kg artean.

Habitata: itsas uretan eta izotze-tan, irlak eta kostaldeak. Baina gehien gustatzen zaizkion habita-tak, ur gaineko izotz-puzkak dira.


Banaketa: zirkunpolarra, ipa-rraldeko hemisferioan.

HARTZ ZURIA

(URSUS MARITIMUS)



Artikoko estepa amaigabe eta jelido-etan, lehorrean mugitzen den haragijalerik handiena bizi da -hartz zuria-. 2 metroko luzera izatera ailega daiteke eta 800 kilogramoko pisua gainditzeko gai da. Zirkulu Polar Artikoko endemikoa da. XVII. mendean, espedizio polarren kopurua handitzearekin, beren populazioak murrizten hasi ziren. Hurrengo bi mendeetan, Bering Itsasoko uharte guztietan, Spizbergenen eta Zembla Berrian, jarraiturik izan ziren, baita Hudson eta Baffin badietan ere. XIX. mendearen amaie-ran, bakailao-industriaren gainbeherak arrantzaleak hartz zuriaren harrapaketa eraman zituen. Beren populazioen murrizketan, beste faktore batzuk ere eragin zuten: inuitek eta Artikoko indioek su-armak erosi zituzten, gizakien kopurua gehitu zen eta haiekin beren etxe-abereak. Hauek hartz zuriei



gaixotasun asko eta bizkarroiak kutsatu zizkieten. Gainera, ehizaldi iparramerikar eta kanadiar asko egon ziren; normale-an, hegazkin txikietan eta gurutzaldietan beren bila joaten ziren, eta animaliek igeri egiten edo ur gaineko izotzean zeu-denean, lurreratzen zituzten. Klima-beroketa eta bere habita-taren urtzaldia espezie honi “heriotza-ukaldia” ematen ari dira.

Ozeanoan ur gainean egonez

Ursidoen familiaren kide guztiek ezaugarri antzekoak dituzte, hartz polarra izan ezik, bera bestetik zeharo desberdina da, baina ez filogenetikoki, garatu behar izan zituen moldaketen-gatik baizik, izan ere, bere ingurunea izotza da, hain zuzen ere. Egitan, Kantauri Itsasoko ertzean bizi diren hartz arreen haiekiko ahaidetasuna oso estua da, eta gizonaren menpean, bi espezieak gurutzatzea lortu da, arrakastaz, baita kume emankorrak lortzea ere. Bere izugarrizko moldaketak bizi-tza urlehotarrera bizirik ateratzen uzten dio, berarentzat izotza bere “modus vivendi” delakoa da. Horrela, bere izu-garrizko igeri-gaitasuna darabil, baita urpean igeri egiteko gaitasuna ere. Uretan, bere aurreko hankekin abiada har-tzen du, 10 km/h-ko abiadurarekin beren janariaren bila doa: itsas txakurrak eta uretako ugaztunak. Nahiz eta igeri egitean burua uretatik kanpo eduki, sarritan zeharo murgil-duta agertzen da eta bakarrik irteten da arnasa hartzeko. Batzuetan kostalde hurbilenetik 300 km-ra agertzen da, izan ere, gurutzaldi-abiadura du eta bere zeharbideetan, izotzaren gainean atsedena hartzeko eta lo egiteko gai da. Eme batek bere kumeekin halako zeharbidea egitekotan, kumeek atsedenaldiak hartzeko amaren bizkarrean igotzen dira, amak, nekaezina, igeri egiten du ertzeraino ailegatu arte. Ur jelatuetatik kanpo, hartz erraldoiak ibiltzen, korrika egiten eta saltoka egiten du erraztasunez, beren oinen egi-tura bereziari eta bere erpeei esker. Horrela, paisaia irrista-kor eta aldapatsuetatik mugi daiteke (30 km/h) edo malkar maldatsuetatik igo daiteke inuiten txakurrengandik ihes egi-teko.

Neurri kontserbazionistak

Jadanik 1955. urtean, Naturaren Kontserbaziorako Nazioarteko Loturaren Batzar Nagusiak arazoan sartuta zeu-den herriei neurri kontserba-zionistak hartzea gomendatu zien. Gomendio horren ondo-rioz, Sobietar Errepublika Sozialisten Batasun Zaharreko Parlamentuak, Artiko osoan hartz-kumeen ehiza debeka-tzeko lehenengo dekretua atera zuen, 1956an. Gainera, Wrangel-eko uharte Erre-serba Natural izendatu zuten, izan ere, hartz asko negutetzat hartu ohi zuten. Nahiz eta hainbat herrialdetan halako neurri kontserbazionistak ere hartu, partzialak izan ziren, izan ere, hartz polarren bana-keta-alde handi bat nazioarte-ko lurraldea zen eta ez zegoen eskumenik haiek babesteko. Baina 1975. urtean Wa-shing-tongo hitzarmena indarrean egon zen eta meha-txatutako flora eta faunaren merkataritza araututa geratu zen. Dirudie-nez, garai hartan, urtean 600 ale hiltzen zituzten eta sortuta-ko larruaren merkataritza oso garrantzitsua zen ekonomia eskimalarentzat. Baina gaur egun ere, nahiz eta nazioarte-ko babesa egon, bere isileko ehizak jarraitzen du baita larrua-ren isilpeko trafikoa ere (Asiako herrialdeetan batez ere). Ebolutiboki hitz eginez, hartz polarra Planeta honetara etorri berria da, izan ere azken glaziazioan zehar agertu zen, hartz



arregandik. Pixkanaka-pixkanaka itsa-so jelatueta moldatu egin zen, horreta-rako bere larruazala iragaitz eta lodia-go bihurtu zen, nabar-kolorekoa galduz eta zuri-horixka hartuz. Bere erpeak murriztu eta indartu ziren, oin-zola ile-tsuak garatu arte. Hauek bai elurrean bai izotzean berme bikaina dira.

Haragijale eta belarjalea

Hartz polarrek, beren aurreko erpeen atzaparkada baten bidez beren biktimak hil ohi dituzte, gero lepoan edo burezu-rrean hozkada ematen diete erremata-tzeko. Beren teknika harrapakaria hartz arreena baina eraginkorragoa da, azken hauek hiltzeko ordua ez dira hain trebeak. Hartz polarrak hain onak dira ehiza egi-nez, ezen orein musketadunak ere hiltzeko gai diren, baina beti ale gazteak edo zaharrak aukeratzen dituzte. Dena den, gehien gustatzen zaizkien animaliak itsas txakurrak dira. Ehizatzeo zelatan daude, haizebideetatik fokek burua atera arte. Nahiz eta foken ugalketa-garaian eta ila-jearen muda-garaian zehar, foka-kumeak eta itsas lehoiak ere inguratu, inoiz ez dute morsa heldu batekin egiten. Hartzaren ehiza-tekniketan, igeri-teknikak hurbilketa-teknikekin bateratzen dira. Kasu honetan hain ondo makurtzen da izotzaren artean ezen lehoia baitirudi. Dena den, hildako balea ertzera joaten bada, izugarrizko festina ospatzen du. Normalean hartzak inoiz ez dio gizonari erasotzen, egoera arruntetan izaki atsegi-nak dira eta gizonari hurbiltzekotan, jakin-gura da oldarkortasuna baino. Uda etor-tzen denean, eta kostaldeko izotzak pi-tzatzen direnean, hartzak lurreraino joa-ten dira eta beren elikadura aldatzeari ekiten diote, belarjaleagoa bihurtuko da: liken mota asko, belarra eta baiak jango ditu.





Tamaina: bere gorputzak (burua-rekin), 120-150 cm artean neurtzen du. Buztana, 12-13 cm artean dago. Bere altuera, gurutzan, 70-80 cm artean dago.

Pisua: 75-160 kg artean pisatzen du.

Habitata: baso menditar hezeak eta freskoak, banbuzko adar arte handiekin (2700-3900 m-ko altuera). Neguan 800m arte jaitsi daiteke.

Banaketa: Gansu, Shaanxi eta Sichuango probintziak (Txinako erdialdean).

1869. urtean, Alpeetako banbudi batean (Sichuan-go Txinako probintzian), Armand David misiolari frantziarrak Panda erraldoia aurkitu zuen. Hango biztanleek, duela 4000 urte baino gehiago jadanik ezagutzen zuten. Bere existentzia ezagutu ondoren, bere sailkapena animalia-erreinuren barruan benetako paradoxa bihurtu da. -Nahiz eta ugaztun hori oso ikasia izan, naturalistak ez datoz bat bere eboluzio-linearekin. Askok pentsatzen dute, Ursidae familiakoa direla,

PANDA ERRALDOIA

(AILUROPODA MELANOLEUCA)



beste batzuek, oster, Procyonidae familiakoa -mapatxeekin ahaideturik daudelako-. Eta badago beste iritzi bat, Ailuropodidae familiakoa direla, handik bere izen zientifikoa -Ailuropoda melanoleuca- dator. Dena den, zoologo gehienak gauza batean bat datoz: kolore biko animalia hori hasieran haragijalea zen baina behartasun nutrizionalak belarjalea izatera eraman zuen. Froga bezala esan daiteke, oraindik ere haragia gustatzen zaiola eta batzuetan edozein sator edo hildako antilopeak jaten dituela.

Seigarren hatza

Hamalau probintzia txinatarretan eta hamabi alde vietnandarretan panden fosilak aurkitu dira, dirudienez 3.000.000 urte dituzte. Paleontologoek pentsatzen dute, beren banaketa-aldearen lehenengo murrizketak klima-aldaketagatik izan zirela. Banburekin lotuta dagoen espezie hau garai beroetan eta hezeetan hedatu zen, gero hotz- eta lehorte-garaian mendiko gordelekurantz atzeratzen ziren, Pleistozeno eta Holozenoan.

Ordutik, bere desagertzearen zergatia, gizonen demografia-hazkundera da, horrek isileko ehiza eta bere habitataren hondamendia -banbudiak-, ekarri zituen. Egun, panda erraldoia, Txinako mendebaldeko mendirik altuenetan bakarrik bizi da -Szechwan-en eta Yag-tzé-Kiang-en, 1500-3000 m. artean-. Bere ezaugarri anatomikoak oso bereizgarriak dira. Bere seigarren hatz ospetsua, bere erpuru oposatua, zeinek banbuzko zurtoinak hostoak kentzeko erabiltzen baitu. Ezaugarri hau tximino antropomorfoekin tartekatzen du. Beste Alpeetako hartzek ez bezala, ez du

hibernatzen, agian, bere elikaduragatik, izan ere, belarjalea da batez ere, eta segurki ez dio indar nahikoa ematen, egiteko. Nahiz eta bere tamaina handia izan, ez du marru egiten, ez du marmar egiten ere, baina ardiak egin duen bezala, berak marraka egiten du. Bere zelula-mailari buruz hitz egiten badugu esan daiteke, mapatxeari hurbilagoa dela hartzari baino (21 kromosoma-parea ditu eta hartzak, berriz 37). Honengatik guztiagatik, ikertzaile batzuek pentsatzen dute, pandaren arbasoak bere hartz-lehengusuetatik banatu zirela, duela 5-20 milioi urte.

Larru garestia

Nahiz eta Txinan pandaren harrapaketa eta merkataritza debekatuta ez ezik zigortua ere egon, duela gutxi arte, harrapatutako aleak zoologikotara eramaten zituzten edo, berokiak egiteko erabiltzen zituzten eta gero Japoniako merkataritza-beltzean saltzeko. Bere gainbeheran eragiten duen beste faktore bat, banbua da. 400 banbu-espezieetatik berak 41 espezie bakarrik onartzen ditu, izan ere, espezie hauen loraketan sinkronia dago. Banburen ugalketa asexuala da, ernamunez, hasieran ernamuin trinkoen antza dute eta oso azkar hazten dira -hilabete gutxitan 15-20 m-ko altuera izatera ailega daitezke-.

Baina 50-70 urtean behin, ugalketa-sexuala ere dute: hazien ernalketagatik. Baina arrazoa da, ernamuindu ondoren, banbua hiltzen da eta banbudiak berarekin. Antzinean, banbudiak oso handiak zirenean eta gizonek ez zuten hainbeste lurralde, ez zegoen arazorik, eta pandak ez zuen joan behar basoz baso. Gaur egun, banbudi gutxi daude eta gainera oso txikiak dira, hau dela kausa bere banaketa-aldea oso murriztua dago. 1974, 1975 eta 1977. urtean banbudiak beren loratze-zikloan sartu zirenean, pandek ez zuten leku-




rik migratzeko, eta egin zuten gehienak goseak tragaturik hil ziren. Wanglang Erreserban bakarrik, non 196 ale baitzeuden, 10-20 ale artean bizirik geratu ziren. Baina inork ez daki ziurtasunez zenbat panda dauden. Naturalisten azken kalkuluak ez dira batere onik, panden kopurua mila ale baino gutxiago da.

Bakartia eta nagia

Panda erraldoia animalia bakartia eta sendoa da, 75-120 kg artean pisatzen du, eta 25 m²-ko lurraldea behar du bizitzeko. Sarritan ibilaldi laburrak (5 km) egiten ditu, ura eta janaria bilatzeko, hemen bere izaera nagia erakusten du. Jaten dituen banbu-kanaberak ez ditu ondo aprobetxatzen, horregatik egunero 40 kg landare-materia jan behar ditu, horretarako 12-14 ordu artean erabiltzen ditu biltzeko, prestatzeko eta jateko.

Sobera daukan denbora, zuhaitz altuetako adarretan denbora ematen du, han bere ilaje trinkoaren koloreari esker, oso ondo kamuflatzen da. Araldian bakarrik bere bakardadea uzten du eta bikotearen bila joaten da basoa utziz. Hau gertatzen da martxo eta maiatza bitartean. Harreman sexual laburrak eduki ondoren, ernaldiak 100-163 egun artean iraunduko du, handik aurrera emeek kume bat edo bi edukiko dituzte. Jaiotzean kumeek ez dute ilerik, arrosa-kolorekoa dute, eta 130 gr inguru pisatzen dute. Normalean, jaioberriak bi badira, haietarikoa bat bertan behera utzita izan ohi da. Zoologoek ustez, izaera hau bizirauteko sen primarioa besterik ez da, izan ere, amak ezin ditu bi kume eradoskitzen. Bost hilabeteko edoskitzaroa ondoren, bizirik jarraitzen duen kumeak bere dieta belarjalea hasiko du eta bere amaren atzetik ibiliko da, urte eta erdi bete arte.





Tamaina: bere gorputzak (burua-
rekin) 86-140 cm artean neurtzen
du eta bere buztana 33-100cm
artean dago.

Altuera: arrek 26-34 kg artean
pisatzen dute eta emeek, berriz,
22-26 kg artean.

Pisua: 20-23kg

Habitata: ur-laster moteleko
ibaietan, urak hartutako basoe-
tan, istingadietan eta basadietan
bizi da.

Banaketa: Kolonbia, Venezuela,
Guyanak, Ekuadorko eta Peruko
ekialdea, Brasil, Bolivia,
Paraguay eta Argentinako ipa-
rrekialdea.

Igaraba erraldoia animalia bitxia da.
Alde batetik, oso handia delako igara-
ba izateko, eta bestetik, bere buztan
zapalagatik -albo bakoitzean proiektzio-
ak dituela-, lantza ematen duela. Itxura
bitxi horri esker, buztanaren uhin-mugi-
menduekin bakarrik igeri egiteko gai da.
Azkar igeri egiten duenean, bere pal-
mondoko-itxurako oin handiak lematzat hartzen ditu; kontrako
kasuan, lau oinekin arraun egiten du.
Eurite-garaian -apirila eta iraila bitartean- igarabaren bizi-zikloa
ur-mailako igoerarekin doa. Lehorte-garaian zehar, urmael txiki
batera, badira edo ibaiko atal batera bere lana gutxitzen du.
Eurite-garaian bizitza nomadagoa darama.



IGARABA ERRALDOIA

(PTERONURA BRASILIENSIS)



Lehorte-garaiaren
hasieran, abuztuaren
amaieratik urriaren
hasierara arte, emearen
ernaldia bukatu ondoren
(65-70 egun artean),
kume batez edo hiru
kumez erditzen da, gu-
txitan, lau edo bost
kume. Handik hiru edo
lau hibabetera, elikagai
sendoa jateari ekiten
diote. Gurasoekin jarrai-
tzen dute kumaldi berria
agertu arte.

Igaraba erraldoia animalia lurraldekoi eta lagunakoa da. Helduen
bikoteak, beste batzuek eta urteko kumaldiak zelula sozial bat
edo taldea eratzen dute. Talde bakoitzean, normalean, lau-zortzi
indibiduo artean daude, batzuetan hoguei ale izatera ailega dai-
teke. Emea eta arra beti elkarrekin daude eta gordeleku berbera
tartekatzen dute, kumeak jaio ondoren ere tarteka-
tzen dute.

Duela urte gutxi arte, igaraba erraldoia kasik
Amazonietako, Guyanetako, Plata ibaiko goi-arro-
ko ur-laster motel guztietara joaten zen. Baina gaur
egun oso bitxia da edo bere banaketa-alde zaha-
rretatik kasik desagertuta dago. Beherakadaren
kausa nagusia, ehiza intentsiboa da, bere tamaina-
gatik eta bere larruaren balioagatik. 1960-ko
hamarkadan zehar, adibidez, Brasilgo 20.000 larru
esportatu zituen. Igaraba erraldoia animalia zara-
tsua da, eguneko eta jakin-minezko ohiturakoak,
honek edozein izaki bizidun bitxiarenganaino hur-
biltzea eramaten du, beldur gabe. 1970eko hamar-
kadaren hasierako debekuekin, igarabaren larru-
trafikoa oso murriztu zen. Baina Amazonietako
arroko ibaien uretako kutsadurak igaraben popula-
zioaren atzerakada eraten du, bai deforestazioa-
gatik baita mehatze-lanetatik etortzen diren metal
astunen kopuru handiagatik.
Igaraba erraldoia arriskuan dagoen espezieztat
hartuta dago UICNen.



Tamaina: gorputzak eta buruak
5'5-6'4 m artean neurtzen dute.
Buztana 1'2-1'5m artean dago.
Gurutzean 2'5-3 m artean neurtzen
du.

Pisua: emeen batezbestekoa
2.700kg da. Arreena 5.400kg.
Gatibualdian pisu handiena 6.700
kilokoa izan da.

Habitata: jatorriz oso desberdina,
jungla trinkoetatik lautada-belarka-
retaraino zihoan. Egun, murriztua
dago eta ekotono baso-belardietan
bakarrik aurki daiteke. Indiako
hegoaldean eta Sri Lankan montzoi-
baso lehor eta arantzatsuan baka-
rrik dago.

Banaketa: India, Nepal, Bhutan, Sri
Lanka, Bangladesh, Myanmar,
Thailandia, Laos, Kanbodia,
Vietnam, Txina (Yunnan hegoal-
dean), Malaysia penintsularra,
Sumatra eta Borneoko iparralde.

Elefante asiarrak afrikarra baina txia-
kiagoa da. Gainera, bere bekokiak
kupula-itxura du, bizkarra konbexua da, belarriak askoz txikiago-
ak, eta tronpak lobulu bat besterik ez du. Desberdintasunekin
jarraituz, esan daiteke, elefante asiarraren emearen letaginak
oso txikiak direla eta ezpainetatik at ezinezkoa dela horiek ikus-
tea.



ELEFANTE ASIARRA

(ELEPHAS MAXIMUS)




Elefante asiarrak askok ez dute leta-
ginik -Sri Lankan %90 dira, eta
Indian izen espezifikoak ematen
diete: Makna-, eta beraz, ez
dituzte erakartzen marfila bila-
tzen duten isileko ehiztariak.
Beren biziraipenerako arazo-
rik nagusia, beren habitataren
murrizketa ez ezik zatiketa ere,
da. Gaur egungo populazio
murriztuak, basoaren edo jungla-
rean artean dagoen muga-alde
belarkara batean bizi dira. Hauen
artean soroak daude, eta honek
arrazo larriak sortzen ditu neka-
zaritzekin.

Elefante asiarrak Asiako hego-erdialde osoa betetzen
du, Siriatic Txinako iparralderaino; egun Indiako azpikontinente-
an bakarrik aurki dezakegu eta hegoekialde asiarran ere. Aske
dauden talde osoa 38.000-51.000 ale artean dagoela, kalkula-
tzen da. Elefante asiarra espezie taldekoa da. Eragiten dituen
gizarte matriarkalak eme batek menperatzen ditu,
arrunki, zaharrena eta talderik handiena da, izan ere,
eskarmentu handiko emea da. Familiako taldean bi
edo hiru eme daude (eme nagusirekin) kumeen eta
subhelduen zenbakia aldakorra izan ohi da (3-11
ale) baina denek odol-harremanak dituzte.
Migrazioetan familiako taldeek lotzen dute samaldak
egiteko (150 elefante arte). Lasto emankorrak aurki-
tzen dituztenean, taldeek beren banakotasuna
berreskuratzen dute.

1991. urtean Elefante-Proiektua hasi zen, Indiako
Plan Estrategikoan sartuta, elefantearen gestio eta
kontserbaziorako. Bere ekintza nagusien artean,
loturako korridore natural baten sorrera dago, izan
ere, alde desberdinetako konexioa da, bere popula-
zioa guztiekin lotura mantentzeko. (Txina, Sri Lanka,
Saba, Sumatra). Horrela hartu-eman genetikoak
espeziearen bidegarritasuna uzten du. Elefantearen
babesteko ekintzak Tigre-Proiektuarekin batera era-
maten dituzte, izan ere, kasik habitat berberak dira
babesten behar dituztenak bi espezieentzat.




Tamaina: sabanako elefantearen gorputzak eta buruak 6-7'5 m artean neurtzen dute arretan, eta emeetan, berriz, 0'6 m gutxiago.
Basoko elefantearen arrak (*L.ciclotys*) sabanako elefantearen neurri berdina du (6-7'5 m artean).
Pisua: sabanako elefantearen arrak 6 tona arte pisa dezake, eta emeak hiru tona neurtzen du.
Basoko elefantearen arrak, 3'2 tona pisatzen du eta emeak, 1'8 tona.
Habitata: bai basamortuko habitate-tan bizi da: Namibian eta Saharan.
Bai sabana arbolatsuetan eta mendi-ko basoetan bizi da (5000m altituderaino).
Banaketa: Afrikako hegoaldea eta erdialdea.



ELEFANTE AFRIKARRA
(*LOXODONTIA AFRICANA*)

Dauden subespezieak

Azken urteetan, animalia hauen kopurua gero eta gehiago murrizten ari da. 1979. urtean, 1.300.000 ale egon ziren, baina hamar urte geroago, 1969an beren harrapaketa debekatu zegoen. Hala ere, bakarrik 620.000 ale geratzen ziren eta 1992. urtean 609.000 ale. Nahiz eta neurri protekzionistak egon, elefanteen kopurua jaisten ari da, alde batetik isileko ehizatagatik (erreserba nazionaletan ere), eta bestetik, marfilaren isilpeko merkataritzagatik. Zifra hauekin, Animalien eta Landareen Nazioarteko Merkataritzarako Hitzaldian, zein Kioton ospatu baitzen 1992an, ehizaren galerazpenaren luzamendua luzatzea erabaki zuten, 1994 arte, baita marfilaren merkataritza ere. Nahiz eta 1989. urteko galerazpenetik ukitutako herriek -Bostwana, Malawi, Namibia, Zambia eta Zimbawe- galerazpena altxatzen saiatu, ez zuten lortu.



Ugaztun-talderik zaharrenetarikoa batetik etortzen dira, elefanteak -Proboszideoak-. Beren arbasoak Tertiariotik etortzen dira. Gaur egun bakarrik bi subespeziek bizirik jarraitzen dute: Elefante afrikarra eta asiarrak, hauek subespezie batzuk dituzte, baina haietarikoa batzuk jadanik agorturik daude eta beste batzuk agortzeko zorian.

Elefante afrikarren artean badaude bi subespezie ondo bereiztuturik: Sabanako elefantea (*Loxodonta africana oxyotis*) eta Basoetako elefantea (*Loxodonta africana*). Zientifiko batzuek beste subespezie bat sartzen dute -Lurmutur Herriko elefantea-. Bizirik jarraitzen duten aleak Hego Afrikan daude.

Afrikaren iparraldean, agortutako subespezie bat bizi zen -Atlas-eko elefantea-. Ez dago deskribapen zientifikorik baina antzina klasikoari esker, bere agerpena ezagutzen da, dirudienez, kartagoarrek eta Afrikako iparraldeko beste herri batzuek etxeko-tu zuten.

Elefante asiarrak -okerki, indiarra deitua- agortutako lau subespezie zituen, eta beste lau bizirik: Elefante indiarra (*E.M. bengalensis*), Elefante malaysiarra (*E.M. hisutus*), Sumatrako elefantea -bakarrik Borneon bizi da- eta Zeilango elefantea. Elefantea indiarra izan ezik, aske dauden beste espezieak oso mehatxatuak dira, eta lurralde babestuetan bakarrik ikus daitezke. Nahiz eta duela hamarkada batzuk, elefante asiarrak ariskutik at zegoela iruditu, gaur egun bere populazioak gero eta murriztuagoa daude, izan ere, harrapatzen dituzte elefanteak soroetan lan egiteko -Keddans-etan- erabiltzen dituzte. Hantxe, beren hazkuntza zerbait zitaltzat hartzen dute, izan ere, elefanteen hazkuntza oso denbora baliotsua da eta ez dutenez nahi, ale berriak harrapatzea nahiago dute.

Elefante asiarrak eta indiarrek haien artean ez dute ezer ikusirik. Horrela, asiarrak aurreko hanketan bost apatx eta atzekoetan lau apatx dituzte, indiarrek, berriz, aurreko hanketan lau apatx eta atzekoetan hiru apatx dituzte. Asiarren belarriak xi-

kiagoak dira, buruaren itxura desberdina eta letagin ahulagoak eta txikiagoak. Elefante afrikarraren letaginak 7m-ko luzera izatera ailega daitezke, asiarraren letaginak, oster, 4-metroko luzera. Elefante afrikar-emeak izan ezik, kasik Hego Asiako lau subespezie-eme guztiek ez dute letaginik edo izatekotan, oinarritzkoak dira oso. Haien artean desberdintasun handiak daude kolorean eta itxuran, dirudienez, bizi diren inguruan eta jaten duten elikaduran badaude fakoreak, zeinek marfilean eragiten duten, horrela, karbonozko, nitrogenozko eta estrontziozko isotopoek marfila osatzen dute, eta haiengan inguruak eta elikadurak eragiten dute. Analisi isotopiko baten bidez, zehaztasunez, elefantea bizi zen lekua jakin genezake.

Marfil artifiziala, itxaropena

Lehorreko ugaztunarik handienaren desagerpena ukaezina da. Agian, bere biziraupenerako azken itxaropena marfil artifizialean egongo litzateke, duela gutxi Sakaiko Japoniako laborategiek aurkitu dute. Material hori lortzeko arrautza-oskolak eta esnea erabili dituzte. Egiteko, arrautza-oskol birrinduak esnearekin (kaseinak elastikotasuna ematen dio, eta enzimek gantzak kentzen dizkiote) nahastzen dira, gero titaniozko oxigeno pitin bat bota behar dute, produktuaren iraunkortasuna gehitzeko. Eskuratutako materia, pianoaren teklak edo ahorako piezak egiteko erabil daiteke.

Hamazortzi ordu janean

Elefante afrikarra oihan handietan bizi da, baina ur asko egon behar da. Ur gutxi edo urik eza dagoenean, urrutiko lekuetara migratu ohi du -estepa irekietara, fruta-arbolekin-. Haiientzat, ura ezinbestekoa da, edateko ez ezik, bere larruazala hezetzeko eta garbitzeko ere. Bizilekuaren aldaketan beti bidexka berberetik ibiltzen dira, nahiz eta aldapatsuak izan edo ostopoak eduki. Edozein ostopori aurre egiten diote elefanteek: bidexka arroka-tsuak, lakuak, ibai emaritsuak eta sakonak..., batzuetan sakone-rra handiko ibaietan edo lakuetan sartzen direnean zeharo urperatuak geratzen dira, tronpa izan ezik. Nahiz eta lehen begi-kolpean, animalia astun eta baldarra irudi ahal izan, arina eta ibiltari ona da. Normalean bere ibilkera aldaketarik gabekoa da baina behartasunak behar duenean korrika egiten du. Jeneralki, 4-5 km/h egiten du baina 20 kilometro ordu-



ko abiadura har dezake.


Migrazioa eginten ba du ere, bere tronpa, arduraz, zaintzen du. Organo hau oso sentikorra da baina gainera beste erabilgarritasun batzuk ditu, esaterako, ura zurgatu, elikagaiak hartu, objektuak usaindu eta hazkatu... Horregatik erabiltzen ez duenean, kiribildua darama, kolpeatu gabe, izan ere, oso baliotsua da: egunero 16-18 ordu jateari ekiten diote eta bakarrik bi edo hiru ordu darabilte lo egiteko.

Hainbeste denbora erabiltzen badu jateko, arrazoi bat dago: haiek ez dira hausnarkariak eta beren urdailak oso bakunak dira, baina hesteak oso luzeak dira. Dena den, jaten dutena oso txarto aprobetxatzen dutenez, kasik elikagaiaren erdia heste-ataltatik joaten da, digeriturik izan gabe. Hau dela kausa, elefanteak belarra edo zuhaitz asko dauden lekuetara joan behar du. Egunero 350 kg-ko elikagai jaten ditu, horretarako ez du manerarik: elikagaiak jaten dituen bitartean zarata ikaragarria egiten du, gauza bera gertatzen da arnasa hartzean edo bere hesteetatik aireak korrika egitean.

Ez dago garai zehatzik araldian sartzeko, arrak beti kopulatze prest daude. Baina emeak dira, araldian bikotea aukeratzeko dutenak. Bikotea eratu ondoren, beren tronpak elkartzen dute eta arrak kopula bilatzen du. Noizean behin, elefanteen artean borroka ikaragarriak sortzen dira, emeak egoera hori sahisteko, ar batzuekin kopulatzen dute, bata bestearen atzetik, espeziea ziurtatzeko eta hobetzeko.

Kumea eta emaginak

Ernaldiak 22 hilabete dirau, handik aurrera, taldeko kideek laguntzen diote emeari. Erditzeko ordua, taldeko kide guztiak eraztun bat eratzen dute, erdian emea eta bi eme-emagin utziz, emaginek erditzen eta jaiotze berria enbrioi-mintzak kentzen laguntzen diote. Erditzean lehenengo buruaren kumea agertzen da, kumea oso indartsua denez, jaiotzetik zutik jartzera hamar minutu besterik ez du behar -emaginek laguntzen diote hori egiteko-, baina ordu bat geroago ibiltzeko gai da. Elefante txikiak haurtzandegiaren antzeko zerbait batean bizi dira, eme heldu batek zaintzen ditu. Horrek janaria murtzikatzen eta esnearekin nahastzen du, gero kumeei emateko. Edoskitzeak lau edo sei urte dirau. Jaioberriak 5 cm-ko letaginak badauzka -esne-hortzeria-, 120 kg inguru pisatzen du. Urte osoa pasatu ondoren, esne-hortzeria erortzen zaio eta bi edo hiru urte geroago bigarren hortzaldia agertuko da. Handik aurrera letaginak oso azkar haziko dira: urtean 9 edo 11 cm, 2,5 m-ko luzera ailegatu arte.



Tamaina: gorputzak eta buruak 286-375 cm artean neurtzen dute. Buztanak, 70 cm-ko luzera du. Altuera gurutzean, 140-180 cm artean dago.

Pisua: 800-1.400 kg artean.

Habitata: jeneralki baso tropikala eta sabanaren arteko trantsizio-aldeetan dago. Sabanan ere, baina adar artean edo belarren artean egon behar da.

Banaketa: Zimbabwe, Kenya, Namibia, Hegoafrika, Tanzania, Zambia, Kamerun, Malawi eta Ruanda.

Errinozero beltza jeneralki baso tropikala eta sabanaren arteko trantsizio-aldeetan dago, hau da, sabana trinkoetan. Baina alde zabalagoetara ere joan ohi da, Afrikako mendebaldean, akazia arantzatsuzko "bush" trinkoko aldeak nahiago ditu sabana zabala baino. Afrikako hegoaldean, "bushveld" delakoa nahiago du "veld" delakoa baino.

Baina errinozeroak bere habitatar



beste inposizio bat ezartzen dio: uraska natural iraunkorra eduki behar duela. Etosha Parle Nazionalean, nahiz eta alde lehorra izan -euriteak pasatu ondoren-, urezko puntu asko ikus daitezke. Baina errinozero beltzak ez du bilatzen bakarrik ura edateko, baizik eta lohizko putzuak ere bilatzen ditu iraulkatzeko. Modu horretaz, berotik eta intsektuen erasoetatik

babesten ditu.

Berez, halako putzuen ondoan lo egin eta atsedena hartu ohi ditu. Errinozero beltza kimakaria da, akaziaren zorroak, zurezko landareen emamuinak, eta beste leka batzuk jaten ditu. Horretarako bere ezpain oratzailea darabiltza, horrela adarren ton-torrei heltzen dizkie, emamuinak atera eta ahora eramaten ditu. Egunero behin bat edaten du, eta aldizka, substantzia mineralak dauden lekuetara doa, hauek miazkatzeko eta horrela bere dieta orekatzeko. Nahiz eta oro har animalia bakartia izan, bere egitura soziala nahiko konplexua da. Osatzen dituen klanetan 13 indibiduo artean daude, haien artean oso ondo eza-gutzen dute, eta lohizko putzuetan biltzen dira. Emeak bere azken kumearekin joaten dira eta batzuetan alaba heldu batekin, seme-alabarik ez edukitzekotan, beste inguruko eme batekin joan ohi dira. Ar gazteek ere beste kideekin elkarrekin osatzen dituzte. Ar helduak bakarrik bizi-



tzen dira, baina batzuetan denboraldiko taldeak egiten dituzte ibiltzeko eta elikatzeko. Dena den, araldian arren artean borrokak daude, emeak lortzeko eta batzuetan saihestezineko amaiera izan ohi da. Beste batzuetan, oster, ar batzuek eme berbera gorteitzen dute, kontraktasun sorrik egon gabe. Kopula oso luzea da -20-80 minutu artean- eta agian, hau dela kausa adarren kontsumitzaileek pentsatzen dute potentzia sexuala adarretan datzala. Baina ordain gisa, ugalketa-garaia oso laburra da, izan ere, bi egunetan zehar bakarrik emea harbera da eta urtean hirutan. Emaldiak 14-16 hilabete dirau. Handik aurrera, emea kume bakar batez erditzen da. Jaiotzean kumeak 40 kg pisatzen du. Bi urte geroago titia kentzea gertatuko da, eta kumearen independentzia bi edo hiru urte geroago. Emeek lau edo sei urte dituztenean heldutasun sexuala lortzen dute eta arrek, berriz, zortzi edo bederatzi betetzean. Antzinatek gizonak errinozero betzaren atzetik ibiltzen ziren, baina azken bi mendeetan bere ehiza areagotu da. Horretarako arrazoi asko dago, esaterako, kirol-ehiza jardutea, animalia arriskutsu eta kaltegarritzat hartzea, bere azalaren balioa eta batez ere bere ada-

rraren balioa. Azken arrazoia nagusia da. Nahiz eta beren jazarpena zorrotzak izan, 1970. urtean, 65.000 ale inguru gertzen ziren, Afrikan eta beren populazioek jatorrizko banaketa-aldea osatzen dute: Zimbabwe, Kenya, Namibia, Hegoafrika, Tanzania, Zambia, Kamerun, Malawi eta Ruanda. Hurrengo hamarkadan adararren balioa areagotu zen eta berarekin isileko ehiza.

1980. urtean, 15.000 errinozero beltzek bizirik jarraitzen zuten. Handik aurrera populazioen beherakada zakarragoa izan zen. 1984. urtean 9.000 ale zeuden eta 1986an 4.000 baino gutxiago. 1988an espeziea alarma gorrian zegoen. Azken hamabost urteetan aleak %98 gutxitu ziren. Zimbabwen, adibidez, 1.700 errinozero bakarrik zeuden, 1.200 ale Kenyatik, Tanzaniatik, Namibiatik, Hegoafrikatik, eta Zambiatik hedaturik. Kamerun, Malawin eta Ruandan, 100 edo 200 ale.

Lehenengo neurrien artean, adarren legez kontrako trafikoa sahiesten zegoen. Errinozero beltzaren kasuan, adarrak, sendagaitza eta afrodisiakotzak izan ezik, daga tradizionelen kirten apaingarritzat ere erabiltzen ziren (Yemengo Jambiak). Herri

honetan, gizonaren ospea Jambia-delakoaren edukitzeagatik neurtzen da, baina erosahaltenaren igoerak, petrolioari esker, eskaera gehitzea ekarri zuen, 80ko hamarkadaren hasieran. 1982. urtean Yemengo gobernuak inportazioa debekatu zuen baina neurria ez zen oso eraginkorra. 1987an debekua areagotu zen eta adarren trafikoa oso murriztu zen. Dena den, Jambiek oso gutiziatuak izaten jarraitzen zuten, eta halako merkataritza gelditzea oso zaila izan zen. Duela gutxi, Wildlife Conservation-ek heziketa-programa egin du populazio yemendarra irakasteko eta ematen du arrakasta dela.

Hainbat erakunde errinozero beltzaren alde daude eta Nazioarteko egitasmoa egiten dute espezie hau kontserbatzea lortzeko. UICN-ek bere Zerrenda Gorrian sartu du eta "arisku larri"aren kategoriarren menpe dago.





Tamaina: arren gorputzak eta buruak 368-380 cm artean neurtzen dute. Emeeak 310-340 cm artean neurtzen dute. Buztana 70-80 cm artean dago. Altuera gurutzean: arretan 170-186 cm artean dago, eta emeeetan 148-173 cm artean.

Pisua: Arrek 2.200 kg pisatzen dute, emeek, berriz, 1.600 kg.

Habitata: lautada alubialak landaredi altuekin, ondoko basoak eta istingadiak.

Banaketa: jatorriz, Pakistango iparraldean, Indiako iparraldean, Bangladeseko iparraldean, Assamen. Egun, Chitwanen (Nepal) eta Kazirangako Parke Nazionalan.

Indiako errinozeroak historiaurreko alegiazko pitzia dirudi, izan ere, animalia horren azala izurrez beteta dago, halaber, sorbalda, alboak eta atzeko hankak tuberkuluz beteta daude. Bere itxura korazatuari esker, makina bat kondaira agertu ziren, esaterako, bere azalak balen kontra balio zuela. Animalia horrek oso antzinako arbasoa dirudi: hanka motzak eta sendoak, buru handia, mutu-



INDIAKO ERRINOZEROA

(RHINOCEROS SONDAICUS)



rean dagoen adar zorrotza...Dena den, bere arbasoen antza izaten jarraitzen du. Gehien gus-tatzen zaizkion habitatak, ibai handiak eta paduren inguruan dauden lautada alubialak dira. Espeziea tratagaitza da. Talde bat ikustea zaila da, emea eta bere kumea izan ezik. Gutxitan, 8-10 ar heldu taldekatzen dira, belarra jateko edo lohian iraulta-tzeko. Pentsatzen dugun ez bezala, beren arma

nagusia ez da adarra, letaginak baizik, labana bezain zorrotzak. Hauek, zailtasunik gabe, etsaiaren larru larrukara erraziki urratzen dute. Ar indartsuenek bakarrik emeak gorteia ditzakete, horretarako aldi baterako beren lurralde utzi behar dute. Urte osoan zehar estalketak gertatzen dira. Aste bat edo bi aste kume berria jaio aurretik, amak bere ondotik at errinozero gaztea botako du. Orduan hiru urte inguru du, eta beste hiru urte behar du heldutasun sexuala lortzeko -emea bada- eta arrak, berriz, zazpi urte beharko du.

Duela mende gutxi, Indiako errinozeroa, Indo, Ganges eta Brahmaputra ibaietako arroetako lautada alubial guztietan bizi zen. XVI. mendean, enperadore mongoliarrek, maiz, errinozeroak ehizatzen zituzten, Indiako iparraldean eta Pakistanen. Geroago, alde horitatik desagertu zen, izan ere, nekazaritza-lur emankorrek zirenez pixkanaka-pixkanaka nekazaritza-

inbazioa agertu zen. Hurrengo hirurehun urtetan zehar gauza bera gertatu zen. Halaber, ehizatariak gero eta errazago ehizatzen dituzte. Britaniarrek eta goimailako kastek animalia horren ehiza "kirolatzat" hartu zuten. Une gorena XX. mendearen hasieran ailegatu zen, maharaja batek 207 errinozero hil zituenean (1871-1907). Garai honetan gobernauk errinozeroen ehiza saritu zuen, te-sailak babesteko. Berehalako ondorioa: jatorrizko banaketa-aldearen desagertzea ez ezik, berehalako desagertzea ere. 1908. urtean, gehiegizko ehizari esker, Karizangako eskualdean (Assamen, Indiako iparrekiakaldera) hamabiko errinozero besterik ez zeuden. Chitwango aldean (Nepalen), berriz, sartzeko zailtasunak zeudenez, berrogeita hamar ale inguru zeuden. 1926. urtean, Kaziraga ehizarako erreserba izendatua izan zen eta 40ko hamarkadaren amaieran, Parke Nazionala. Indiako errinozeroa berreskuratzen hasi zen eta 1950. urtean Chitwango aldean 800-1000 ale zeuden. Dena den, hurrengo 20 urtean zehar, bereizi gabeko deforestazio masiboak eta isileko ehizak aleak murriztu zituz-



ten 100 ale baino gutxiago utzi arte.

1962. urtean, Chitwan, errinozeroen ehizarako erreserba izendatua izan zen, eta 1973. urtean, Parke Naturala, baina errinozeroen ehiza parkean jarraitu zuen 1976 urte arte. Urte horretan, Nepaleko armadak 700 gizon bidali zituen isileko ehiza, eraso egiteko eta kentzeko. Handik aurrera, errinozeroen populazioak berreskuratzen hasten dira, eta egun bere banaketa-alde osoan 2000 ale

inguru daude

Oraingo ikasketen arabera, bere aniztasuna genetikoak ona

izaten jarraitzen du. Dena den, errinozeroaren etorkizuna aseguratu dago, izan ere, demografia-erregulazioa etengabeko gehikuntzari ekiten dio, eta ondorioz, habitaten gal-tzapena eta isileko ehiza berriro kota kezka-garriak lortzen ari da. Ehiza horren arrazoia jakitea oso erraza da: Indian eta Ekialde Urrunean, adarraren balioa oso altua da, izan ere, balio sendagarria eta afrodisiakoa duela, pentsatzen dute. Zentzugabeko sinesmenaren arabera, apendizak hauekin egin zituzten kopetan, pozoiek irakiten zuten. Pentsatzen da isileko ehizak urtero %5 kentzen dituela, eta pixkanaka-pixkanaka aleak desagertzen hasi direla. Honi gaineratu behar diogu, herrialde hauetan hedatutako krisialdia aurrera doala eta aurrekontuak murrizten ari direla. UICNaren arabera, espezie hau arriskuan dago eta CITES-ek Lehenengo Gehigarrian sartzen du.





Tamaina: gorputzak eta buruak 300-320 cm artean neurtzen dute. Buztanak 70 cm neurtzen du, altuera gurutzean, 160-175 cm artean dago.

Pisua: 1.400-2.000 kg artean pisatzen du.

Habitata: plubioihanetan, non uraskak eta lohizko putzu asko baitaude. Jeneralki, lautadetan dago baina batzuetan 1.000 m-ko altuera baino gehiago egon daiteke.

Banaketa: Indotxina eta Java uhartea.

bezala, adar bat besterik ez du, eta gris arrexka-kolorekoa da. Dena den, ez da bezain handia, burua txikiagoa du eta gorputzaren izurrak ez dira bezain itrenak. Baina primitiboagoa da, izan ere, azken hamar milioi urtetan zehar, bere itxura kasik ez da aldatu. Adarra motz samarra da, gehienez 25 cm-ko luzera. Emeak arrak pixka handiagoak dira baina ez dute adarrik edo zerbait edukitzekotan, protuberantzia txikia dute. Espezie honen goiko ezpaina zorrotz eta oratzailea da. Honek bere elikadurari buruz hitz egiten digu: Javako errinozeroa kimakaria da: adarrak, ernamuin bigunak, hosto gazteak eta batzuetan, eroritako fruituak jaten ditu. Gehien gustatzen zaizkion habitatak, plubioihanak dira, non uraskak eta lohizko putzu asko baitaude.

Orokorrean, alde launak nahiago dituzte baina batzuetan 1.000 m-ko altuera baino gehiago egon daitezke. Alde batzuetara joaten dira beren ekintzak egitera, aldizka, hara joaten dira eta batzuetan egun batzuk handik mugitu gabe egoten dira.



Tenasserimen eta Malaysian desagertu da. 1.928.urtean, azken aleak ehizaturik izan ziren, Selangorren (Malaysia) eta Perak-en 1.932. urtean. 1990. urtean George Schaller eta bere kolaboratzaileak konturatu ziren 1988.urtean norbaitek ale bat harpatu zuela ilegalki, eta ikerlan zehatza egin ondoren konturatu ziren, alde horretan hamar edo hamabost alek bizitzen jarraitzen zutela. Gaur egun, gatibualdian ez dago Javako errinozerorik, kausa horregatik eta errinozero honen kopuru hain baxua izateagatik esan dezakegu desagertzeko zorian dagoela. UICN-aren arabera Javako errinozeroa "arriku larrian" dago eta CITES-ek Lehenengo Gehigarrian sartzen du.

JAVA UHARTEKO ERRINOZEROA

(RHINOCEROS SONDAICUS)



Batzuetan eguneko lekualdaketa luze samarrak egiten dituzte, 15-20 km inguruko distantziak. Elikatzen duenenan, bi cm-ko lodiera duten adarrak ateratzen ditu, ernamuinak eta kimuak apurtzen ditu eta zuhaitzak errotik ateratzen ditu (15 cm-ko diametroa). Lurraldeak txikiak dira, eta espeziea oparia zenean, 3 km²-gatik animalia bat zegoen. Emea "poliéstrica" delakoa da, eta berrogeita seian behin, edo berrogeita zortzian behin araldian sartzen da.

Emaldiak hamasei hilabete inguru dirau, eta kume baten bidez erditzen da. Titia kentzea bi urtean gertatuko da. Emeak bi edo lau urterekin heldutasun sexuala lortuko du eta arrak, berriz, sei urtekin. Egile batzuen arabera, Javako errinozeroa Munduko ugaztun handirik urriena da. Dena den, antzinean Asiako hegoekialde osoan eta Indiatik hedaturik zegoen. Baina beste kasu batzuetan gertatzen den bezala, habitaten galtza-penak eta isileko ehizak -adarrak lortzeko- desagertzera eramaten dute. Gaur egun, Ujung Kulongo Parke Nazionalen errinozeroen populazio handi bakarra dago (75 ale inguru) eta nahiz eta babestua egon animalia hauek isileko ehizarekiko eta epidemiarekiko sentikorak dira oso. Beste alde batzuetan errinozero honek ez du hainbeste sorte on eduki: Sumatran,



Tamaina: gorputzak eta buruak 236-318 cm artean neurtzen dute. Altuera gurutzean 112-145 cm artean.

Pisua: 1.000 kg

Habitata: plubioihanak, oihan menditarrak eta istingadiak, itsas mailatik altitude handietaraino.

Banaketa: Myanmar, Borneo, Malaysia penintsularra eta Sumatra.

SUMATRAKO ERRINOZEROA

(DICLOBUTRIS SUMATRANA)



Sumatrako errinozeroa familiarik Sordezkaririk txikiena da. Hark, gurutzean, 144 cm-ko luzera gainditzen ez duen tamaina bati zan ohi du, eta gutxitan 800 kg- pisu baino gehiago du, beste modutan esanda, errinozero zuriaren erdia pisatzen du. Asiako hiru espezieetatik hau da bi 1 Beste ezaugarri zorrotz bat da, itxura iletsua: kumeek ilaje luzea eta trinkoa dute; ale gazteek, ordea, ez da hain trinkoa, baina gorrixka dira; eta bukatzeko, ale helduengan ilajea urria eta hauskor eta beltza da. Bere itxura hirtsutua da, bere azala leuna da beste errinozeroekin konparatu ondoren, horregatik "badak kerbau" deitzen diote (bufalo-errinozeroa, esan nahi duela). Espeziea oso primitiboa da, duela 40 milioi urte bizi ziren espezien antza du. Hortik, bere ebakortzak ez ezik, letaginak ere kontserbatzen dituela, dena den, hortz hauek modifikatu dira, borrokagatik eta elikaduragatik ez hainbeste. Gehien gustatzen zaizkion habitatak dira, lekuak non ura oso ugaria baita eta lurzoru izurtuak baitaude, baita plubioihan tropikalak, basoko mugak eta bigarren oihana ere.

1975. urtean, N.J. Nan Strien zoologoak, ikerlan bibliografiko

zorrotza egin ondoren, deliberamendu batzuk lortu zituen: Espezie hau habitat askotan bizi dela, itsas mailatik dauden paduretatik goi-mendiraino; urtaroko migrazioak egiten dituela, eta euritea gertatu ondoren, lautada urperatuz geratzen denetan, muinoetan babesten dela. Martxoan edo apirilean goi-mendira etxeratzen da, iteulien erasotik babesteko. Aldapa mendikatsuetatik bizkortasunez ibiltzeko gai da. Igerilari ona da, batzuetan itsasoan barruratzeko gai da. Espezie honek gatz mineralen dependentsia handia du. Oso maiz gatz mineral-metaketak bisita egiten dute, miazkatzeko. Hori gertatzen da Gunungeko Parke Nazionalen, izan ere, metaketa asko daude. Handik 13-14 ale km² gatik ikus daiteke (kopuru hau oso handia da beste leku batzuekin konparatzen baditugu). Ugalketa-garaitik at, emeak lurraldekoak dira eta haien artean sahiesten dira. Beren bizitza bakartian zehar kumeen laguntza besterik ez dute jasaten, eta ugalketa-garaian arraren laguntza ere onartzen dute. Lau urtero behin kumeak izaten dituzte. Arrak ere bakartiak izaten dira, baina noizean behin gatz mineral-metaketetara joaten dira emeen bila. Gurungeko Parke

Nazionalen, jaiotza gehienak urria dira eta maiatzaren artean gertatzen dira, izan ere, euri handienetan. Errinozeroak 16 edo 17 hilabete dituenen, amaren ondolik joaten da eta beste errinozero gazte batzuekin joan ohi da. Sumatrako errinozeroa pixkanaka-pixkanaka desagertzen ari da: bere habitaten desagertzea, gehiegizko ehiza, adarrak eta gorputz-atal batzuk lortzeko...

Gaur egun, Sumatrako errinozero basatien kopurua 300 ale inguru dago. Kopuru hori oso txikia da, eta bere aldakortasun genetikoa arriskuan dago. Singapurreko gobernuak errinozeroaren hazkuntzarako programa egiten ari da, gatibualdian aleak hazteko.

UICN-aren arabera Sumatrako errinozeroa "arriku larrian" dago eta CITES-ek Lehenengo Gehigarrian sartzen du.





Tamaina: bere gorputzak (buruarekin), 210-260 cm artean neurtzen du. Buztana, 40-55 cm artean dago. Bere altuera, gurutzean, 116-150 cm artean dago.

Pisua: 240-372 kg artean pisatzen du.

Habitata: mendiko larreetan eta baso hezeetan bizi da.

Banaketa: Angolako hego-mendebaldea, Namibia, Hego Afrikako mendebaldea eta hego aldea.

Lurrako azken zaldi basatiak Dzungaria-ko (Txina) basamortu eta estepa gazietatik inguruan ibiltzen ziren. 6-15 ale inguruko samalda beldurti eta nomadetan bildurik. Duela 120 mende baino gehiago, beren arbasoak Euro-Asiako kontinente osotik, aske, noraezean ibiltzen ziren -Espainiatik Ozeano Bareraino-. Gaur egun kalkulatzeko da beren populazioek 70 ale baino gutxiago dituztela, baina zoologikoetan 300 ale

MONGOLIAKO ZALDI BASATIA

(EQUUS CABALLUS PRZEWALSKI)



inguru daude.

1879.urtean Mongoliako zaldi basatiak esan diete edo Przewalskiarenak -Equus caballus Przewalski- aurkitu zituen Errusiako ofizialaren ohorretan. Gero Polizkov-ek zientifikoki deskribatu egin zituen. Gero Polizkov-ek zientifikoki deskribatu egin zituen. Inork ez zekien Prehistoriatik bizi zirela eta Asian, eta European alde batzuk bete zituztela. Hau frogatzeko, hain zuzen ere, Santimamiñe kobetako labar-grabatueta ikus daitezke (duela 12.000 urte inguru). Izotz Aroan gertatzen ziren klima-ozzilazioek ugaztun batzuek leku batetik bestera migratzera behartu zuten, hau zela kausa, ekido familia askok eskualde berbera betetzen zutela. Klima-aniztasun horrek, biotipo-aniztasunak eta banaketa-alde handiak subespezie asko sortu zituzten. Honela, Solutrén (Frantzia) aurkitutako hezurrak Paleolito goiztiarrekoa ziren, eta oso zaldi txiki batena ziren -E.P. gracilis- Alemanian aurkitakoak tamaina handiko zaldi batena dira E.P. robustus-, horri mendebaldeko zaldia ere esaten zioten. Baina, gainera, Polonian XVIII. mendearen amaierara arte E.P. silvaticus subespeziea bizi zen, segurki espezie hau Erdi Aroaren hasieratik Alemanian zegoen.

Basamortuko zaldia

Jatorrizko Gobiko basamortutik. Gaur egun arte bizirik atera den ekido basatiaren

subespezie bakarra da, Mongoliako zaldi basatia. 145 cm-ko altuera du, gurutzean, 400 kg-ko pisua du. Norvegiako fiordetako Poneyren antza du - itxura eta tamainagatik-. Bere burua latza da, eta bere begiek optikoki muturra luzatzen dute. Bere buruaren gainean zurda tenteak ditu. Hauek bere bitza osoan zehar irauten dute, etxe-zaldiek, berriz, bakarrik zalditxoak direnean zurda hauek dituzte. Urtean bitan beren ilajea aldatzen da -udan eta neguan-. Neguan luzeago eta grisaxka bihurtzen da.

Normalki, samalda guztietan argidari bat dago, izan ere, haien arteko harremanak ez dira oso estuak -emeek zalditxoekin dutenak izan ezik-. Buru hori ez egotekotan, samaldak ez daki zer egiten duen hainbat egoeren aurrean: emigratu, ihes egin, uraren edo lastoen bila joan... Egoera hauek sarritan gertatzen dira, izan ere, ungulatu hauek oso alde idorretan bizi dira, eta han publiometriaren indizeak oso baxuak dira. Horregatik denbora gutxi behar dute ar berri batek taldea hartzeko, eta samaldaren aurrean jartzeko eta arriskuak saihesteko. Sarritan, samaldak ihes egin duen bitartean, ar-nagusi horrek jarraitzaileen kontra borrokatzen du. Gaur egun, espezie horrek bi etsai ditu: gizakiok, eta otsoak. Eta azkenek ahulei edo gaixoei bakarrik eraso egiten diete.

Gauzez oso eragileak dira, iluntasun betean, larreetara eta erre-kastoetara joaten dira, gero, egunsentian estepara eta basamortura atseden hartzera, itzuliko dira eguzki-sarrera arte. Egarrria ondo jasaten dute, hiru egun edan gabe jasateko gai dira baita ur-gazikara edateko gai ere. Neguan, egarrria agertzekotan, elurra irentsi ohi dute. Nahiz eta basatia izan, etxe-zaldiaren ibilera berdina dute: urratza, trosta eta lauhazka.




Irrintzi antekoa ere du, berdina bi sexuetan, alde batetik agurtzeko balio du eta bestetik indibiduaren maila baieztatzeko. Urdurik edo aztoratua dagoenean, gogorki arnasotsa ateratzen du. Samaldak gidatzen dituzten hazitarako animaliek ez dute lehiakiderik nahi. Emeak araldian daudenean, ar-nagusia irrintzi motz baten bidez desafiatzen ditu ordezko lehiakideak. Egotekotan, borroka prestatzen dute. Ar-nagusiak ausartenak mehatxatu ohi ditu, horretarako belarriak atzerantz mugitzen ditu eta burua makurtzen du. Lehiakideak ez badu ihes egiten, beren atzeko hanken gainean altxatzen dira eta lepoaren muskulu-bala elkarri kosk egiten saiatzen diote. Irabazleak, estalketa gertatu ondoren, emea inguratzen du eta albotik bere ondoan jartzen saiatzen da, horrela, emeak ostikadak ematen badiu, berak ez du jasoko, izan ere, emeek ez dute finkasunik ezkongaiak arbuizatzeko ordua. Ezkongaiak lortzen badu, emearen gainean jartzen da eta kopulatzen duten bitartean emearen gandorrari kosk egiten dio.

Gazte bahitzaileak

Batzuetan emerik geratzen duten arrek ez dute onartzen egoera eta ar-nagusia- ren samaldako behorrak bahitzeko asmoa dute; beste espezie batuetan joera hau egundokoa da. Halako bahiketak saihesteko, ar-nagusia eme egoten da eta maiz, samalda inguratzen du emeak lotzeko. Baina batzuetan segurtasun-neurriak ez dira nahikoak eta gazte bahitzaileek nahi dutena lortzen dute. Kopula gertatu ondoren -hamaika hilabete pasatu ondoren-, zalditxo basatiak jaiotzen dira, normalean apirila eta ekaina bitartean eta beti gauzez-. Lehenengo egunetan ama bakarrik kumearekin dago, baina bi asteren buruan, -zalditxo korrikalari goiztiarra denean- samaldaren atzetik ibiltzeko gai da eta samaldarekin joango da. Lau urte bete duenean heldutasun sexuala lortzen du, baina urte bat lehenago jadanik espezie iraunarazteko gai da. Bere biziraupena 30 urtekoa da.





Tamaina: bere gorputzak (buruarekin), 210-260 cm artean neurtzen du. Buztana, 40-55 cm artean dago. Bere altuera, gurutzean, 116-150 cm artean dago.

Pisua: 240-372 kg artean pisatzen du.

Habitata: mendiko larre eta baso hezeak.

Banaketa: Angolako hego-mendebalde, Namibia, mendebaldeko eta hegoaldeko Hegoafrika.


MENDIKO ZEBRA

(EQUUS ZEBRA)



Mendiko zebra beste bi espezieetatik oso errazki desberdintzen da, bere ilaje espezifikoagatik. Burchellen zebratik edo arruntatik desberdintzen da, marra estuago eta ugariagatik, atzeko laurdenetan, berriz, marra hauek zabalagoak dira. Errege-zebratik desberdintzen da, marrak hain estuak ez edukitzeagatik eta ipurkonkorrean zabalagoak izateagatik. Beste ezaugarri bat da, lepoaren azpian lepapea, eta belarri handiak edukitzea (gutxienez 20 cm-ko luzera zebra arruntan). Bere izen arruntak esaten

digun bezala, animalia hau Afrikako hegoalde mendikatuetako lautadetan eta goi-lautadetan bizi da. Bi subespezie daude: Izenaren espeziea (*Equus zebra zebra*), normalean 2000 m-ko kotetan aurki daitezke, baina neguan latitude baxuetaraino joan ohi da; bigarren subespeziea Hartmannen zebra da (*Equus zebra hartmannae*), batzuetan mendia uzten du lautada haretsuetara joateko. Lehenengoa Hegoafrikan bizi da eta bestea baino txikiagoa da. Bigarrena, Angolan eta Namibian bizi da.



Espezie biek eguneko ohiturak dituzte, eta goizeko lehenengo orduetan eta arratsaldeko azken orduetan, eraginkorragoak dira. Nahiz eta bere dieta basikoa belarra izan, batzuetan, zuhaitzen artean ere kimatzen dira. Mendiko zebrak talde ugaltzaile txikiak eratzen ditu, eta ez du lurralde zehatzik babesten. Talde hauetan, hazitarako ar bakarra eta 1-5 behor kumeekin daude. Nahiz eta ar menperatzaileek haien artean aldakorrak izateko joera eduki (beren haren ondoan daudenean), batzuetan elkartzen dira eta denborazko samaldak egiten dute (30 ale inguru). Eme helduak, bizitza osoan zehar, taldean egon ohi dira, baina batzuetan batzuk bertan behera uzten dute beste ar ugaltzaile batekin talde berria egiteko.

Talde bakoitzeko eme banak bere hierarkia du, eta mehatxuzko keinu baten bidez mantentzen du. Ar gazteek beste talde egiten dute eta beren harenetatik at kanporatutako ar zaharrek elkartzen dira. Talde hauetan hierarkia ere badago, baina ez da harenetan bezain gogorra. Sarritan, gazteen taldeak haren batekin elkartzen du denboraldi batean, orduan, beren otzantasunaren bokalizazioak oso garrantzitsuak dira ar




menperatzailearen aurrean, baita hartzen duten jarrera bitxia ere (lepoa tente eta lepoa aurrerantz luzatua). Urte osoan zehar, jaiotzak gertatzen dira. Gestazioak urte oso bat inguru dirau. Moxalek, jaiotzean, 25 kg inguru pisatzen dute, eta handik egun gutxi barru, belarra hozkatzeko gai dira. Dena den, titia kentzea hamar hilabetezko zalditxoetan gertatzen da.

Antzinean, mendiko zebra (*Equus zebra zebra*) Lurmutur Hiriko hegoaldeko eta erdialdeko mendi guztietan bizi zen, baina 1930.urtean ia agortzeko zorian egon zen, gehiegizko ehiza-


gatik. Dena den, Mountain Zebra Parke Nazionala zazpi urte geroago sortuta izan zen, Karro Handian (Lurmutur Hirian). 1945.urtean berreskuratze txikia nabaritu zen. Gaur egun 470 mendiko zebra daude, nahikoak dira bizi-raupenerako. Mountain Zebra Parke Nazionalean 200 ale inguru daude, dirudienez hemen ez dago baliabiderik gehiagorik biziraupena mantentzeko. Soberan dauden zebrak, Karrooko Parke Nazionalera eramandak dira, birpopulaketa planarekin jarraitzeko. Antzinean, Hartmannen zebra Angolako hego-mendebadetik Hegoafrikako mugaraino bizi zen, mendebaldeko Namibiako mendetatik pasatuz.

1988.urtean 50.000-75.000 ale artean zeuden, baina gero etxe-ganaduarekiko leiak eta herriko nekazaritza jazarpenak bere murrizketa ekarri zuten. Horrela, 1988.urtean 13.000 ale bakarrik geratzen dira. Gehienak erreserbetan eta parkeetan daude (Namib eta Etoshako Parke Nazionalak). UICN-ek Hartmannen zebra "arriskuan dagoen espezie" hartu du.





Tamaina: gorputzak eta buruak 180-250 cm artean neurtzen dute. Altuera gurutzean, 73-110 cm artean dago.
Pisua: 180-250 kg artean pisatzen du.
Habitata: glde hotzak eta hezeak non basoak eta sastraka trinko asko baitaude.
Banaketa: Andeetako mendikatea, Venezuelako ipar-mendebaldeetik Perú-ko iparralderaino.



Gehien gustatzen zaizkion habitatetak, basoko adar arteko alde heze eta hotzak dira (2.500-4.500 m-ko altuera). Azken alde hau Andeetako alderik tropikaleana da (Venezuelako hegoekialdea, Kolonbia, Ekuador eta Peru-ko hegomen-debaldea). Kroniken arabera, Hego Amerikara iritsi zirenean, espainiarrak, animalia hau jadanik ezaguna zuten, baina 1829.urte arte Roulin geografo frantziarrek ez zuen bere deskribapen zientifikoa egin. Hasieran “pinchaque” esan zioten (mamua). Tapir guztiak bezala, bakartia da (emea eta bere kumea izan ezik). Bai sastraka trinkoaren artean bai lur-zoru zabalean oso arina da. Bere ohiturak gautarrak dira,

baina bizi den lekua, lainoak estaltzen duenez, egun betean ere ohartzea erraza da. Bere zentzumenik garatuena usainmena da, eta estalketan oso garrantzitsua da. Gorteiatze zaratatsu bat jasandakoan, emea eta arra buru-buztanaren kokapenean mantentzen dira, beren sexu-organoak usainduz, eta zirkuluak eginez. Gero elkarri belarriak, oinak eta alboak haginkatu ohi dizkiote, eta bakoitzak bikotearen sabelean tronparen bidez arakutzen du. Gero kopula gertatuko da. Ernaldiak 390-400 egun artean dirau. Emea kume bakar batez erditzen da. Beste espezieen gertatzen diren bezala, kumearen ilajea nabar-gorrixka da, orban eta marra beltzekin. Horri esker, sastrakaren artean oso ondo kamuflutzen da. XX. mendearen erdian, zoologiko batzuek espezie honen aleak eduki nahi izan zuten, eta honek espezie basatien murrizketa sortu zuen. Zorioneko Ekuadorreko ehiztariak, ale bat ehizatzen zuenean, 5.000-8.000 dolar arte kobratzen zituen. Hori benetako dirutza zen garai hartan (1970. urtean). 1967 urtetik 1968 urte arte, trafikatzailerek 30 tapir hil zituzten, Uxaldi hauen ondorioa penagarria izan zen, garai hartan 2.000 ale geratu ziren. Gaur egun Venezuela desagertuta dago, eta Perun ale gutxi daude. Kolonbian eta Ekuadorren, oster, ehun ale bizirik jarraitzen dute. UICN-ek “arriskuan dagoen espezieztat” hartzen du eta bere Zerrenda Gorrian sartu du, halaber, CITES-ek Lehen Gehigarrian sartzen du



MENDIKO TAPIRRA

(TAPIRUS PINCHAQUE)



Tamaina: gorputzak eta buruak, 220-250 cm artean neurtzen dute. Buztana, 5-10 cm artean dago. Altuera gurutzean, 90-120 cm artean.
Pisua: 250-320 kg artean pisatzen du.
Habitata: oinarritzko plubioihan trinkoak.
Banaketa: Myanmar-ko hegoaldea, Thailandia, Malaysia penintsularra, Sumatra eta agian, Laos.

Bizirik jarraitzen duten lau tapir espezieetatik handiena da Asiako tapirra. Gainera, Asian bizi den espezie bakarra da. 320 kg-ko pisura irits daiteke, eta bere ilajeak kolore oso berezia du: gorputzaren erdialdea zuria da, eta atzeko eta aurreko aldeak beltzak dira, ezinezkoa eginez beste animalia batekin nahastea. Hasieran kolore horretako kontrasteak oso ikusgarria dirudien arren, egia esan, oso kriptikoa da.

Gaur egungo banaketak Myanmar-ko hegoaldea, Thailandia, Malaysia penintsularra, Sumatra eta, agian, Laos hartzen ditu. Duela mende batzuk, Borneon eta Txinako hegoaldean ere bazegoen. Azkenaldian, Laosen, Kanbodian eta Vietnamen aurkitu da. Gehien gustatzen zaizkion habitatak, oihan hurbilgaitzak dira.



ASIAKO TAPIRRA

(TAPIRUS INDICUS)



Bere jarduera gautarra da eta animalia bakartia da. Amak bakarrik egoten dira beren kumeekin, baina behar dutenean bakarrik. Igerilari bikainak dira, eta denbora luzea ematen dute uretan, uretako landareak janez, freskatuz edo bizkarrietatik babestuz. Apirilean edo maiatzean, ernaldia amaitu ondoren (13 hilabete), emea kume bakar batez erditzen da. Jaiotzean, kumeak 6-7 kg artean pisatzen du eta

amarekin egoten da zortzi hilabete inguru. Denbora horretan, tamaina heldua lortuko du. Bere ilajea nabar-gorrixka kolorekoa da, zuri koloreko marrekin. Marra hauek kontraste handia dute, eta kamuflaje bikaina eskaintzen diote, plubioihaneko estratu baxuenetako argi-itzalen jokoan.

Kumearen koloreak bost hilabete ingurura arte irauten du, baina gero pixkanaka desagertzen hasten da.

Deforestazioak kalte handia egin die. Hori da beren beherakadaren arrazoi nagusia, Malaysian eta Sumatran, izan ere, musulmanek ez dute jaten beren haragia -txerriaren haragiarekin antzekotasunagatik.

Way Kambas-eko Parke Nazionalan (Sumatra) bizi diren tapirren errolda bakarra ezaguna da, eta hemen 200 ale inguru daude. Dena den, tapir gehienak lurralde babestuetatik kanpo bizi dira, eta horrek beren errolda ezagutzea eta kontserbaziorako programa egokiak ezartzea zailtzen du. UICN-ek “espezie ahultzat” hartzen du eta bere Zerrenda Gorrian sartu du, eta halaber, CITES-ek Lehenengo Gehigarrian sartzen du.



Tamaina: bere gorputzak (buruarekin), 200cm neurtzen du. Bere altuera, gurutzan, 120 zentimetroan dago.
Pisua: 300kg arte, baina handiagoa izan ohi da.
Habitata: lurralde arbola-tsua, lautadako plubi-oihanak, baso zingiratsuak eta mendiko oihanak.
Banaketa: Mexikoko hego-ekialdea (Yukatan izan ezik), Erdialdeko Amerika, Kolonbiako Chocó, eta segurki bere luzapena Ekuadorretaraino, beti Andeetako mendebaldera.



iraunkorreko zuhaitzak ezinbestekoak dira ematen duten itzalagatik, baita arbola txikiak eta zuhaixkak ere, izan ere, beren kimuak jaten ditu. Lehorte-garaian, berriz, fruituak jaten ditu eta egunez, landaretza trinkoaren artean atseden hartzen du. Plubioihanetan eta hosto iraunkorreko basoetan, urte osoan zehar, fruituak eta kimuak tartekatzen ditu. Izugarriko usainmena du bidexken artean gidatzeko.


Gestazioak 390-400 egun artean irauten du. Emea kume batez erditzen da, oso gutxitan bi. Jaiotzean, bere ilajea marroi iluna da, gorrixkaz ñabartua, zuri-

koloreko orban bereziekin, oihaneko landare-tzaren argi-itzalen jokua imitatzen dutenak. Bi hilabeteko kumeak direnean, marrazkiak desagertzen hasi ohi dira, eta sei hilabeterekin zeharo desagertuta daude, gero helduaren ilajea agertuko da. Tapir gaztea amarekin dago, kume berria agertu arte. Emeak heldutasun sexuala bi urterekin lortzen du eta arrak, berriz, hiru urterekin. Iparraldeko tapirra bere jatorrizko banaketaren zati handi batetik desagertuta dago. Erdialdeko Amerikako eta Hegoamerikako ipar-mendebaldeko deforestazioak aurrera doan heinean, populazioak gero eta leku ezkututagoetan babesten dira, baita alde babestuetan ere -Parke Nazionaletan-. UICNaren arabera, 5.000 ale baino gutxiago daude, horregatik "arriskuan dagoen espezie" hartuta dago eta 2022. urtean argitaratutako Zerrenda Gorrian agertzen da.



IPARRALDEKO TAPIRRA

(TAPIRUS BAIRDI)



Tamaina: gorputzak eta buruak 150-175 cm artean neurtzen dute. Buztanak 15'5 cm inguru du. Gurutzan 75-100 cm artean
Pisua: 165-275 kg.
Habitata: altuera txikiko plubioihana eta bere istingadiak.
Banaketa: Boli Kosta, Liberia, Sierra Leona eta Ginea.



Hipopotamo pigmeoa edo nanoa hipopotamo arruntaren kopia -miniaturan- ematen du. Dena den, arretaz begiratzen badiogu, desberdintasun batzuk bere egitura baditu. Gorputzera eta tamaina izan ezik (hipopotamo arrunta baino hamar aldiz txikiagoa), bere burua biribil-duagoa da eta ez da hain zapala, sudurzuloak handiak dira eta kasik zirkularrak. Begiak buruaren alboetan daude eta ez dira irtenak -arruntarekin gertatzen den bezala-. Bukatzeko, atzeko hanken behatzak ondo banaturik daude eta azazkal altzairatuak dituzte. Oihaneko animalia da, ez da hipopotamo arrunta bezain urtarra; horregatik bere atzeko hanken mintza txikiagoa da, eta bere behatzak libreagoak. Hipopotamoen larrua oso leuna da, dermisa lodia da eta gainazaleko geruza oso estua da epidermisan. Bere azalean, beste ezaugarri bat dago, ez duela sebo- edo izerdi-guririk gorputz-tenperatura erregulatzeko. Beren lekuan, beste guruin mota bat dauka, hauek likido lika-



tsua, gorrixka eta alkalinoa jariatzen dute; horrek, lehortzean, larruaren gainean lakaren moduko bat eratzen du. Gertakari bitxi horri esker, pentsatzen zen, eguzkian jartzean, hipopotamoak odola izerditzen zutela. Kontua da, pigmentu gorrixka oso ona dela ultramore erradiazioaren kontra joateko, iragazki gisa erabiltzen duelako. Horrela, eguzkiaren erreduren kontra babesten dio larruari, baita bakterio- eta fungi-infezioen kontra ere.

Hipopotamo pigmeoa ibai eta erreka txikien ertzetan bizi da, baita istingadietan eta oihan hezeetan ere. Egunez, lo egiten du eta gaez noraezean dabil, emamuinen, hostoen eta erri-tako fruituen bila. Bakardadean, bikotean, edo hiruko taldetan (arra, emea eta beren kumea) bizi da. Emearen araldiak bi edo hiru egun irauten du. Eraldiak 190-210 egun inguru dirau (batez besteko 199). Gero, kume bakarra jaio ohi da, 3,4-6,4 kg artean pisatzen duena.

Erregistro fosilak erakusten digu, antzina hipopotamo espezie mota batzuk zeudela. Haietariko bat, Iberiar Penintsulan bizi zena, gure arbasoen garaikidea izan zen. Gaur egun, bi espezie bakarrik jarraitzen dute bizirik, eta hipopotamo nanoa ez da txikiena soilik, primitiboena ere bada. Hipopotamoen eboluzioa azaltzen duten hipotesi horietako batek dio, basoetan animalia txiki bat zegoela eta hipopotamo nanoaren antza zuela. Agian, bere primitibismoagatik, hipopotamo nanoa betidanik espezie bitxia izan da. Bertakoak bere haragiagatik atzetik dabilta, izan ere, haragiaren zaporeak basurdearen haragiaren antza du. Baina bere biziraupena mehatxatua dago: gehiegizko ehizagatik eta bere habitataren hondamendiagatik (iroko eta beste egur batzuen erauzketari esker). UICNaren arabera, espezie hau "zaurgarritzat" hartzen da eta CITES-ek Bigarren Gehigarrian sartzen du.




Tamaina: altuera, gurutzean 81-102 cm artean. Adarren luzera, 38-68 cm artean.

Pisua: 65-75 kg

Habitata: basamortuetako muga arroksuak edo hareatsuak, landaretza sakabanatuekin, belarra eta basobera. Espezie hau besteak baino basamortuaren barne-rago sartzen da.

Banaketa: Siria, Irak, Israel, Jordania, Sinaï eta Arabiako penintsula.

Dauden hiru espezieetatik, Arabiako orixa txikiena eta arinena da. Bere adarrak ia zuzenak dira eta pixka bat atzerantz makurturik. Bi sexuek adarrak dituzte, baina emearenak luzeagoak eta segailagoak izan ohi dira. Basamortuko baldintza gogorretara ondoen moldatu den antilopea da orixa, elikagairik ezak presio selektibo gisa lan egin duelako, horregatik tamaina txikiko espeziea eta gorpuzkera txikia sortu ditu. Oso bitxia da pisu handiko Arabiako orixa ikustea



(70 kg baino gehiago). Bestetik, hain txikia da ezen basamortuko beroari oso ondo moldatzen zaion, baina gau jela-tuetara ez. Izan ere, zenbat eta txikiago izan hainbat eta azalera/bolumenaren arteko erlazioa handiagoa izango da, eta beraz, bero-galtzapena. Beste tenperatura-moldaketa bat, ilajearen kolorea da: zuria da nagusitzen dena, izan ere, eguzki erradiazioa islatzen du. Negu gorriaren gauetan, orixei ilea tente jar-tzen zaie, beren epidermis ilunean eguzkiaren beroa hobeto hartzeko. Gazez, ile bera izugarritzko gorputz-isolatzailea izango da. Neguan, ilajearen orban ilu-nak beltzagoak dira eta horrek bero-absorptzioa gehitzen du.

Basamorturako beste moldaketa bat apatx zapalak dira -pala-itxurakoak-. Horiei esker, lurzoru hareatsuaren gainean oso ondo ibiltzen dira, batzuetan distantzia handiak egi-tzen dituzte, landaredi freskoagoa bilatzeko. Antilope hauek, non eroriko den hurrengo zaparrada jakiteko gai dira, nahiz eta hemengo euriak oso murriztuak eta irregularrak izan. Gehien gustatzen zaizkion lursailak, harri-tsuak, aldapatsuak, "wadis" direlakoak (ibai lehorrak azalean), sakonera txikiko sakonune-ak eta dunak dira. Lursail hauek ez dira hain lehorrak benetako basamortua baino, izan ere, zuhaitz baxuak, sastrakak, belarra eta abar daude. Dena den, idortasun handia denez, hostoen eta belar freskoaren gordekinak agor-tu ondoren, urrutiko lekuetara migratu behar izango du, azken zaparraden bila. Bere tamai-na txikiari esker, akazien adaburuen azpitik sar daiteke eta bere apatxekin zulotxo batzuk egin ditzake, harea freskoagoa aurkitzeko eta aire

idorretatik babesteko. Orix-samaldetan hamar edo indibiduo gehiago egon ohi dira, baina baldintzak onuragarriak izatekotan, ehun ale baino gehiago elkarrekin egon daitezke. Samaldan hierarkia lineala eratzen dute. Ar menpe-ratzaileak eme eta ar batzuk bere menpean ditu. Baldintzak onuragarriak bihurtu bezain laster, emea araldian sartzen da, eta arrekin estaltzen da. Handik 240 egunetara, kume batez erdituko da. Leku batzuetan ugalketa urtarokoa da.

UICNaren arabera, espezie hau "zaurgarritzat" har daiteke eta CITES-ek Lehenengo Gehigarrian sar-tzen du. Bere populazioaren hondamena oso goiz gertatu zen: giza zibilizazioak agertu bezain laster, beren atzetik zebilen. Herri nomadek gauza bera egin zuten, izan ere, ehiza benetako plazer kitzika-garria zen, animalia hauen azala larru baliotsu bihurtzen zen, eta gainera, haragia bikaina zen. Irakeko azken orixa 1941. urtean hila izan zen, han-dik aurrera, espezie honek, Nefud eta Rub-al-Khali-ko Arabiako basamortuetan bakarrik, bizirik egotea lortu zuen. Urte batzuk geroago, petrolioaren indus-triaren hedapenak eta garraio motorizatuaren oro-kortzeak behin betirako espeziarekin bukatu zuten. 1972. urtean ale basati guztiak hilak izan ziren eta hurrengo espezieen erregistroak ez dira baieztaturik izan, zientifikoki. Zorionez, herrialde arabiar batzuk 50eko hamarkadan samaldak edukitzen hasi ziren -gatibualdian-. 1962. urtean, UICN-ek, WWF-ek eta Fauna Preservation Society-k bi ar basati eta eme bat harrapatzea lortu zuten, Arabiako hego-ekialdean. Handik Kenyara eraman zituzten eta gero Phoenix-ko zoologikora (Arizona), izan ere, hango klima eta habitata, eta jatorrizko animalienak berdintsuak dira. Talde txiki hori aurrera joan zen eta arrakastaz ugaltu zen; 1968an



16 ale zeuden. Geroago, beste talde ekoizle batzuk egin ziren, Los Angelesen, Riaden (Saudi Arabia), eta Qatarren. Gaur egun Arabiako penintsulan 300 ale gatibu daude eta hainbat mendebaldeko herrialdetan 370 ale. Gehienak Phoenix eta San Diego Zoologikoetan. Asmo handiko nazio-arteko programa honen arrakastak, samalda batzuen sar-teza uzten zuen, Omanen (1982) eta Jordanian. Samalda hauek arrakastaz ere estali ziren eta gaur egun egoera basa-tian dauden aleen kopurua ehun baino gehiago da, horrega-tik, espeziea salbatua dagoela esan daiteke.



Tamaina: gorputzak eta buruak 225-305 cm artean neurtzen dute. Buztanak 33-55cm artean neur-tzen du. Konkorraren altuera, 190-230 cm artean dago.

Pisua: 300-690 kg artean.

Habitata: estepa lehorra eta basa-mortuak

Banaketa: Mongoliako hego-men-debaldeko alde txikietan eta saka-banatuatan eta Txinako ipar-men-debaldea (Gobi-ko basamortua).




Gameluak bi konkor ditu eta bere itxura iluntsua eta baldarra da. Nahiz eta bere itxura eta dromedarioarena oso desberdina izan, hauekin hibrido emankorrak sor ditzake. Gameluak, Kontinente Berriko Ila-

mekin, guanakoekin eta bikuinekin Kamelidoen familia osa-tzen du. Gameluak hausnarkari zaharretatik ondorengo bakarrak dira -Tilopodoak-. Bai gamelua bai dromedarioa, alde idorretan oso ondo mol-

datzen dira. Beren begietan betazal trinkoak dituzte harea-ekaitzetatik babesteko. Beren belarriak txikiak eta iletsuak dira, eta animaliak nahi duenean sudurzulo estuak eta luzangak itxi ditzake harea eta hauts sartzea saihesteko. Goiko ezpainetik ateratzen den zimurra gauza bat adierazten du: ahoak sudurzuloetatik hezetasuna biltzen duela. Bere oin-zolako kojinetek lurzorurik bigunenen gainetik ibiltzen uzten diote. Denbora luzez urik edan gabe egoteko gai dira eta bere gorputzaren pisuaren %40 galtzeko gai dira, deshidratazio itzulezin batean erori gabe. Konkorrak, gantza biltzeko balio dute, modu horretaz, denboraldi luzeetan jan gabe egon daitezke. Benetan, konkorren tamainak eta tentezia osasun-egoera orokorra erakusten dute. Edozein landaretza idor edo arantzatsu jateko gai dira, baita landareak ere. Estalketak urte osoan zehar gertatzen dira, baina gehienak landareen hazkuntza-denboraldian gertatzen dira (martxotik apirilera arte). Ernaldiak 390-410 egun artean dirau, eta handik aurrera kume bakarra jaioko da. Bitxia dena da, hurrengo egunean kumea korrika egiteko gai dela. Gameluak zelabere eta zamabere gisa erabiliak izan dira, bai bere sendotasunagatik bai bere etxekotzerako erraztasunagatik. Bere zamalkatzeko joera “*ambladura*” delakoa da, hau da, albo bateko hankak aurre-rantz mugitzen dira eta beste albo-koak, berriz, atzerantz. Agian, K.a. 2.500 urtean gamelua otzandua izan zen -lango iparraldea eta Turkestango hego-



mendebaldekoaren artean dagoen goi-lautadan-. Handik, gamelu etxekotuak Irakerantz eta Asia Txikirantz hedatu ziren, mendebaldetik eta Txinako iparralderantz eta Mongolia, ekialdetik. Gobi basamortuan badaude gameluak etxekotu gabe. Neguan, gamelu hauek Gobi estepako ibaietako ertzerantz joaten dira, baina elurra urtu bezain laster, berriro basamortura itzultzen dira. 1920. urtean gamelu basatien populazioak ugariak ziren, baina handik aurrera, drastikoki, murrizten hasi ziren, eta Mongolian eta Txinako iparraldean bakarrik talde txiki batzuk geratu ziren. Azken errolden arabera, populazio basatia 950 ale ingurukoa da, 600 inguru Txinan eta 350 Mongolian. Populazioaren joera oso atzerakorra da, eta kalkuluak ez dira onak: 2003. urtean murrizketa %84ra iritsiko da. Kausen artean batzuk aipa ditzakegu: ehiza, oasien hondamena -meatzelanagatik-, otsoen gehikuntza... Dirudienez, urtero 20 gamelu hiltzen dira, hainbat kausagatik. Populazioak babesteko, Mongolian Gobi Handiaren Erreserba sortu zen (1982), eta 2002. urtean Arjin Shan Lop Erreserban (Txinan) agertu zen. UICN-ek pentsatzen du beste erreserba bat sortzea beharrezkoa dela, Txinan. UICN-ek 2022. urtean argitaratu zuen Zerrenda Gorrian arrisku kritikoan dagoen espezie gisa katalogatu du.



Tamaina: gorputzak eta buruak 325 cm neurtzen dute (ar basatiak). Altuera, gurutzean 203 cm arte (ar basatiak).
Pisua: arrak 1.000 kg arte eta emeak, 330 kg arte.
Habitata: Alpeetako tundra, estepa bakartiak eta izotzezko basamortuak 6.100 m-ko altuerara arte.
Banaketa: Tibeteko goi-lautada.

Gehien gustatzen zaizkion habitatak, Tibeteko goi-lautadetak estepa hondatuak eta izotzezko basamortuak (4000-6000 m-ko altuera) dira. Nahiz eta bere itxura zarpail eta baldarra izan, igokari bikaina da, bere oinen gainetik oso seguru dabil eta oso iraunkorra da. Dena den, lurralde lauan korrika egiten duenean edozein zaldik erraz harrapatzen du. Jakarentzat, hotza ez da arazo larria, izan ere, bere ilajeak beroa oso ondo kontserbatzen du. Beste abelgorri batzuetan bezala, bere saku handiaren edukia 40 °C-an hartzitu ohi du, eta berokuntza zentralaren gehitutako sistema horri esker, tenperatura baxuak jasan ditzake (0 °C-tik beherago). Berezitasun horri esker, landaredi gutxi dauden lekuetan bizirik atera daiteke baita elurraren gainetik atsedean hartu ere. Jak jaioberriek ere hotzaren laztasunak oso ondo jasaten dituzte. Lagunarteko animalia da. Emeak eta kumeak elkarrekin talde handietan biltzen dira; arrek, berriz, bakardadean egotea nahiago dute edo ezkongai-talde txikietan biltzea (inoiz ez dira hamabi ale baino gehiago). Araldia, irailean hasten da eta hiru edo lau aste dirau. Zezen helduek, zeinek sukar-astintzeak hartzen dituzten, beste zezenekin borroka egiten dute, emeak lortzeko. Araldian zehar



JAKA (BOS GRUNNIENS)



Altitude handi-
tan bizi den abel-
gorria da, jaka.
Gehien gustatzen zaizkion habitatak, Tibeteko goi-lautadetak estepa hondatuak eta izotzezko basamortuak (4000-6000 m-ko altuera) dira. Nahiz eta bere itxura zarpail eta baldarra izan, igokari bikaina da, bere oinen gainetik oso seguru dabil eta oso iraunkorra da. Dena den, lurralde lauan korrika egiten duenean edozein zaldik erraz harrapatzen du. Jakarentzat, hotza ez da arazo larria, izan ere, bere ilajeak beroa oso ondo kontserbatzen du. Beste abelgorri batzuetan bezala, bere saku handiaren edukia 40 °C-an hartzitu ohi du, eta berokuntza zentralaren gehitutako sistema horri esker, tenperatura baxuak jasan ditzake (0 °C-tik beherago). Berezitasun horri esker, landaredi gutxi dauden lekuetan bizirik atera daiteke baita elurraren gainetik atsedean hartu ere. Jak jaioberriek ere hotzaren laztasunak oso ondo jasaten dituzte. Lagunarteko animalia da. Emeak eta kumeak elkarrekin talde handietan biltzen dira; arrek, berriz, bakardadean egotea nahiago dute edo ezkongai-talde txikietan biltzea (inoiz ez dira hamabi ale baino gehiago). Araldia, irailean hasten da eta hiru edo lau aste dirau. Zezen helduek, zeinek sukar-astintzeak hartzen dituzten, beste zezenekin borroka egiten dute, emeak lortzeko. Araldian zehar bakarrik, jak basatiek marmar bereizgarria botatzen dute, honek espeziari “grunniens” edo marmartiaren kalifikatzailea eman dio. Baina horri gaineratu behar diogu beste gauza batzuk marmatiak izateko, esaterako, gurutzearen gailurrera heltzen den konkorratik, eta bere alboetatik erortzen diren zurda luzeagatik. Azken ezaugarri hauek bisonteak gogorarazten dizkigute. Lehen pentsatzen zen jaka beste genero batekoa zela: Poephagus-a. Orain dela 3.000 urte, jaka etxekotua izan zen, Tibetean. Gaur egun eskualde handi bat betetzen du, esaterako, Afganistan, Bujara, Nepal, Tibet, Mongolia eta Txinako iparraldea. Egun, jaka eta Erdialdeko Asiako goi-lautadetan bizi diren biztanleen kulturak elkarrekin daude. Kirguisarrek, Pashtusarrek, Mongoliarrek eta Tibetarrek animalia hauek behar dituzte bizirik jarraitzeko. Batez ere Tibetarrak, izan ere, beren kultura osoa jakaren inguruan mugitzen da. Alde batetik, zamabere edo zaldi gisa erabiltzen dute, izan ere, mendiko bidexka malkartsuenetatik 150 kg-ko zamak eramateko gai da. Bestetik, beren haragia eta gantza oso preziatuak dira; halaber, beren gurina eta esne krematsu eta aromatikoa jaten dituzte Tibetarrek. Urtean behin, tibetarrek jaka ilea moztzen dute, berokiak ez ezik, burusiak, kordak eta beste objektu batzuk ere egiteko. Larrauekin “*yurtas*” direlakoak eta batelak egiten dituzte. Simaurra, ongarriztat erabiltzen dute eta, lehortu ondoren, erregaitzat. Izan ere, goi-lautadan egur gutxi dago. Etxe-jakak basatiak baino txikiagoak dira oso, beren adarrak ahulagoak dira eta kolore asko dituzte (beltza, beltzaxka, gorrixka, pikardatua...). Etxeko jaka zebuarekin eta gayalarekin gurutzatu dituzte eta hibridoak agertu dira, batzuk esnearen ekoizpenean espezializatuak, beste batzuk haragian edo gurdiberean. Jaka altitude handietan oso erabilgarria da, hau dela kausa, guztira 12.000 ale inguru daude. Jak basatiak, berriz, zorte txarra du, nahiz eta antzina lokalki oparoa izan, eta Txinan ofizialki babestuak egon, bere kopuruak gainbehera zorrotza jasan du eta gaur egun ehun ale inguru bakarrik dago, baina okerre-na ez da hori bakarrik, okerre-na da oso sakabanaturik dagoela eta ez dagoela benetako irtenbiderik haien artean gurutzatzeko. Bereizketa geografiko horrek odolkodetasunaren arazo larriak ekartzen dizkie, baita aldakortasun genetiko gutxi ere. Horrek benetako desagerpena eraman ditzake. UICN-ek espezie zaugarritzat hartzen du.



Tamaina: bere gorputzak (buruarekin) 210-350 cm artean neurtzen du. Buztana, 30-80 cm artean dago. Bere altuera, gurutzean, 180-195 cm artean dago.

Pisua: 350-1000 kg artean pisatzen du. Arrak, 850 kg inguru pisatzen du eta emeek gutxiago pisatzen dute.

Habitata: baso mistoak, basoberekin eta alde zabalak.

Banaketa: antzina, Europako alde handi batean eta agian Asian ere. Gaur egun Bialowiesako basoan (Polonia eta Bielorrusiaren arteko mugan), Kaukason, baina hemengo animaliak ez dira garbi-garbiak (Amerikako bisontearen geneak dituzte).

hausnarkaririk handienaren arbasoa da. Antzinean, kontinente osoan zehar zegoen (Eskandinavian izan ezik). Kantauri itsasoko ertzean bere arrastoa ere utzi zuen, esate baterako, Axlor-ko eta Santimamiñeko kobeetako pinturak, grabatuak, hezur-hondakinak (Bizkaian), Lezetxiki, Urriaga, Ekain,



BISONTE EUROPARRA

(*BISON BONASUS*)



Labar-pintura bate-tik aterako balitz, Bisonte europarra Bialoweza-ko basoetatik (Polonia) lauhazka ibiltzen da. Baso hauek bisonte horren gotorleku bakarrak dira. Duela 10.000 urte leku honetan bazegoen, eta gaur egungo

Aitzibitarte edo Altxerri (Gipuzkoan), Altamira (Kantabrian), Mina-ko koba (Asturiasen). Bisontea -Bison priscus- gure basoetan egon zen Goi-Paleolitoan (10.000-100.000 urte atzera). Bisonte primitibo iraungi horrek bisonte europarra eta bisonte amerikarra sortu zituen, Jesús Altunaren esanetan (paleontologo euskalduna eta Aranzadi Zientzi Elkartearen lehendakaria). Bisonte europarra amerikarrarekin konparatzen badugu, europarra argalagoa da, 800 kg pisatzen du, eta besteak, ordea, 1200 kg; bere hankak luzeagoak dira -basoko ingurunerako moldaketa, bere habitata-. Hostotza, orbela eta zuhaitzen artean bere denbora ematen du. Zuhaitzen azala eta lore-begiak jaten ditu.

Bere samaldetan 20 ale inguru daude, emeak eta gazteak, beti gidatzen ditu gidari batek. Negua etortzean, samalda nomadek beste erremediorik ez dute: alde mugatu batean eta ia mugiezinak egon behar dute. Orduan, maiz, samaldetan 50 ale baino gehiago ikus daitezke. Nahiz eta bobido hau beti martxan egon, iluntzean, ekintza areagotu ohi du eta eguerdiko unerik beroenak aprobetxatzen ditu hareabainua hartzeko (alde idorretan badago). Nahiz eta animalia astuna izan, eta basoetatik oso geldiro ibili, lauhazkatzeko eta salto handiak egiteko gai da, eta abagunea behar badu, igeri egingo du. Egiantan, zuhaitz gazteen gainean egoten da etzanarazteko eta horrela hosto freskuak jateko.

Desagertzea eta berpizkundea

Adituen ustez, XII. mendean, Pirinioetan zeuden Iberiako bisonte europarrak agortu ziren. Mende bat lehenago, Ingalaterran agortu ziren. Frantzian, berriz, XVI. mende arte bizirik egon ziren. Baina beren azken bastioia Alemanian zegoen. Hango baso trinko eta sakonetan Erdi Aroa osoan bizi ziren, gero Transilvaniaraino beren biziraupenaren bila joango ziren. Baina Herriko printzeek ehiza egiteari ekiten zioten eta 1790. urtean azken alea hil zuten. Handik aurrera bisonte europarraren banaketa-aldea murriztu zen eta Poloniako basoetan bakarrik ikus zitekeen, izan ere, printzeek han ezkutatu zituzten aristokraziak bakarrik ehiza zitzan. Bisonte-hilketek pixkanaka-pix-

kanaka aleen kopurua murriztu zuten, eta XIX. mendean Bialowieza-ko basoetan bakarrik baztertuak geratu ziren (Poloniako eta Lituaniako mugaren artean), azkenean 800 ale baino gutxiago geratu ziren.

1975. urtetik aurrera, Poloniaren hirugarren banatzea gertatu zen eta Bialowieza errusiarra izatera pasatu zen, handik aurrera tzarrek bisontea aintzat hartu zuten eta haiei esker beren desagertzea saihestu zen. Urte gutxitan, samaldak mila ale baino gehiago zituzten eta Europako zoologikoetan bisonte europarrak zeuden (tzarren ekimenagatik). Dena den, Lehen Mundu Gerrak kalte handia egin zion animalia horri eta berriro 1921. urtean desagertu zen (isileko ehiztari bat erruduna izan zen).

1923. urtean, bisonteen ganaduzale-hazleen talde bat bildu zen eta Bisonte Europarren Kontserbaziorako Nazioarteko Elkarte sortu zen. Frankfurteko Parke Zoologikoko zuzendaria, Kurt Priemel, elkartearen lehendakari-tza hartu zuen. Bere lehen ekintza, gatibu zeuden animalia guztien errolda egitea izan zen (56 animalia, haietatik 24 eme ugaltzaile). Gero, hazkuntzarako eta aukeratzeko prozesua burutu zuten eta pitinka-pitinka handiagotzea lortu zuten. Gaur egun 2000 ale inguru daude.

Araldia

Bisonte europarrak ez du zarata handirik egiten, baina amasots txikiak edo marmarrak egiten ditu. Dena den, tenperatura igotzen denean -abuztuan edo irailean- bobido honek orro egin ez ezik, ezpain lodiak ere altxatu ohi ditu. Zezen gazteak, garai honetan, helduetatik banatzen dira -badaezpada-, izan ere, araldian sartzean, helduek zuhaitzei eta zuhaixkei erasotzen



dizkiete eta erotik ateratzen dituzte, beren etsaiei ez erasotzeko. Bi arrek topatzen diren bezain laster, batek bataila-eremua uzten du, agian, borroka bortitzegi izan litekeelako.

Edozein bisonteren harenean 2-8 behi artean dago. Estalketa gertatu ondoren, ernaldiak 279 egun inguru iraungo du. Denbora hori pasatu eta gero, emea samaldatik banatzen da, erditzeko. Kumea jaio bezain laster, amak, bere mihiaren bidez, garbitzen dio zekorari, plazenta inguratzen duten mintzak jaten ditu, eta basoan ezkutaturik mantentzen da, zekorra bere atzetik ibiltzeko gai izan arte -hiru egun beranduago-. Une horretan, ama eta kumea samaldara itzultzen dira, zekorak lau urte bete arte, heldutasun sexuala lortu eta independentzia lortu arte. Gorputzaren garapenaren gorena 8 urterekin lortuko du eta bere biziraupena 25 urte inguru izan ohi da.

BENGALAKO TIGREA

(*PANTHERA TIGRIS*)



Bere erregistro fosilaren arabera, tigre hau Siberiatik dator. Dirudie-nez, Indiako subkontinentean habitat onenak aurkitu zituen. Hantxe, Bengalako tigrea (*Panthera tigris tigris*)-subespezie tipoa,-, hedatu zen, baina Erdialdeko eta mendebaldeko Asia -Turkiaraino eta Kaukasoraino (Kaspioko tigrea)- kolonizatu zuen, baita Asia kontinental osoa, eta lehenengo hiru irla sonaia ere. Gaur egun, subespezie batzuk agortuak daude: Kaspioko tigrea (*Panthera felis virgata*), Balikoa (*Panthera felis balica*) eta Javakoa (*Panthera felis sondaica*) eta beste espezieak mehatxaturik daude.

Tigrea, aparteko igerilaria da, 8 km-ko zabalera gurutzatzeko gai eta 29 km-tan zehar atsedean hartu gabe, igeri egiteko gai da. Nahiz eta normalean egin ez, zuhaitzetara igotzeko gai da, eta 10m-ko altuerako jauzia -horizontalean- egin dezake. Tigreak harrapakin handiak nahiago ditu, zenbat eta handiagoak izan, hobe, baina handiegiak izatekotan, adibidez, bufaloak edo gaureak, subhelduak nahiago ditu. Normalean, batez

besteko tamainako harrapakina egun bat edo bi egunetan jateari ekiten dio, gero egun bat edo bi atsedean hartzen ditu eta basoko adarren artean ezkutatu edo lurperatzen du eta, badaezpada ez da urruntzen sarraskijaleetatik babesteko.



Tamaina: bere gorputzak (buruarekin) 140-280 cm artean neurtzen du. Buztana 60-90 cm artean dago. Bere altuera, gurutzean, 91cm-koa da.
Pisua: Siberiako tigrea (*P. tigris altaica*) arrek 180-306 cm artean pisatzen dute, emeek 100-167 kg artean neurtzen dute. Bengalako tigrea edo indiarra (*P. t. tigris*), arrek 180-258 kg artean pisa-tzen dute eta emeek 100-160 kg artean. Baliko tigrea (*P.t. balica*), arrek 90-100 kg artean pisatzen dute eta emeek 65-80 kg artean.

Habitata: era askotakoa da; plubioihana, mangladiak, baso monzonikoak edo arantzatsuak, terai-kanaberak, Himalaiako, Txinako eta Siberiako taigaren baso kaduzifolioak eta koniferoak.

Banaketa: agortutako subespezieak aparte utziz: Indiako subkontinentea, Myanmar, Indotxina, Malaysiar penintsula, Yangtsé ibaiaren harana (Txina) eta Sumatra.



Nahiz eta gizakion agerpena sahiestu nahiago izan, tigreak benetako arrisku-garriak dira, batez ere Sunderbansen mangladietan. Tigreen gizarte-antolamendua, habitataren baldintzen eta harrapakin-ugaritasunaren arabera izan ohi da. Ar helduek lurere mu handiak dituzte (50-1000 km2 inguru Indian, 500-4000

km2 Siberian), eta beren gemuz bidez markatzen dute, uzki-guruinen usain gogorra ere laguntzen du. Aldean, harrapakin asko daudenean, eme batzuek arraren lurraldea betetzen dute, sublurraldeak babeztuz. Tigre gazteak amaren menpean daude bi urte bete arte, gero beren jaioterria uztera behartuta izaten dira. Tigreen eztei-gorteiatzeak 7-10 egun artean dirau, baina benetako koitoak bi edo hiru egun dirau. Egundorietan, asko kopulatzen dira, egunean hogeit aldiz arte, izan ere, emeak obulaziorako estimulatua izan behar du. Ernaldiak 105 egun inguru dirau, handik aurrera emeak bi edo hiru kumez erditzen da, batzuetan sei arte. Bere gordelekua, arroken artean eta landaretza trinkoaren artean kokaturik egon ohi da. Sei edo hamalau egunen artean begiak irekitzen dituzte. Hiru edo lau hilabeteko kumei, amak titia kentzen die. Sei hilabeteko kumeak beren amaren atzetik joaten hasi ohi dira. Emeek hiru edo lau urte pasa ondoren, heldutasun sexuala lortzen dute, eta arrek, berriz, lau edo bost urteekin. 1973.urtean, Indian ahalegin handiak egin ziren Tigre-proiektua

aurrera eramateko: felido honen ehiza deuseztatu zen eta Baso-erreserbak sortu zituzten: Dudwan, Korbetten, Delhitik gertu, Periyarren, (Keralan) eta Sunderbanetan. Proiektu honek populazioa gehitzea lortu zuen, horrela, 1972.urtean 1800 ale zeuden baina 1986an, berriz, 4015 ale zenbatu zituzten. 1994.urtean Mundu Mailako Tigre-Foroa sortu zen, oraindik felino hauek bizirik jarraitzen duten nazioek parte hartu zuten proiektuan. Felino hauen populazio osoa 2500 alekoa inguru da, populazio-taldeetan banaturik, baina talde bakoitzean 250 ale baino gutxiago daude, eta honek odolkidetasuna eta endogamia edukitzeko arriskua erakartzen ditu.

Gaur egun, Bengalako 4.000 tigre-alek baino ez diraute bizirik aske mundu osoan; mende honen hasieran, 100.000 ale zeuden.

Gizakiak eragin du Lur planetako felidori handien, ederren eta ankerrena den honen sarraskia, Bengalako tigrea

(*Panthera tigris*) deritzonarena.

Natura eta Baliabide Naturalak kontserbatzeko Nazioarteko Batasunak (NKNB) emandako datuen arabera, gaur egun 4.000 tigre-ale basatik bakarrik dira bizirik Malaysia, India, Txina, Java eta Sumatrako oihan menderaezinetan setiatuak; mende honen hasieran, aldiz, 100.000 ale inguru zeuden.

NKNBk galzoriko espezieen Liburu Gorrian sartu du ugaztun hau. Liburu horretan jasota daude, halaber, espezie bereko beste sei arraza: Kaspio, Siberia, Java, Sumatra, Txina eta Indotxinakoak. Zoritarrez, jada bertan behera galdu dira beste hainbat arraza ere, Baliko tigre-espeziea tarteko. Isileko ehiza, habitataren suntsiketa eta pestiziden erabilera dira, besteak beste, arraza honek egun dituen mehatxu nagusiak.

NKNBk aditzera eman duenez, tigre-populazio batek ezin dezake behar bezala bizirik iraun bere kasa munduko edozein lekutan; behar adinako barietatedun foku genetiko bati eusteko, izan ere, ezinbestekoa da gutxienez 300 aleko populazio bat izatea aldamenean.

Gaur egun ezagutzen ditugun tigre-populazio denak askoz ere urriagoak dira, eta elkarrengandik distantzia izugarrietara egon izaki, ezinezkoa da euren arteko truke genetikoa. Horregatik, isileko ehiza geldiarazi eta zigorrak gogortu ezean, urte gutxiren buruan zoologikoe-tako barrote hotzez haraindi baino ezin ikusi ahalko ditugu izaki miresgarriak.

Eta, espezie honen galbide ziztu biziangoak geraezina dirudienez gero, biologoek eta kontserbazionistek nekez ikusten dioten salbaziorik.

Ile motzeko felido dotorea

Hori-gorrixka ageri du ilajea, zeharkako marraz marraturikoa; horri zor dio batik bat dotoretasuna katutza ilemotz, bizartsu eta masaildun honek. Felido bikaina da, lehoia baino altuagoa eta astunagoa; 3,06 m-ko luzera har dezake eta 180-258 kg pisukoa. Bizirik dirauten felidoetarik handiena da; gorputz ezinago malgua du eta izugarri bizkorra da. Iparraldeko eskualdeetan bizi diren aleek, adibidez, Indiako ordoki epeletakoek



baino ilaje sarri eta luzeagoa izan ohi dute, urte-sasoi hotzak dirauten bitartean behinik behin.

Beste felido batzuei bezalatsu, latitude-aren eta klimaren arabera aldatu ohi zaio ilajearen kolorea; hala nola, bizia-gotu egiten zaio barreneko kolorea, edota lausoagotu egiten zaizkio alboko marraz. Bengalako tigreak harpe-toki ugariko ibaiertzetan ezartzen du gordelekua, edota banbu-mulu helezinen artean eta zuhaitzi zarratuko eskualdeetan. Enbarazurik egiten ez badiote, ezkutaleku berari eusten dio bizitz osoan. Urte-sasoirik lehorren eta beroenean, Indian ekainetik aurrera egokitzen baita, artean idortu gabeko ur-lasterretako erretenetan bildu ohi dira Bengalako tigreak, beti berdeak dirauten sastrakadien itzalpean atsedean hartzera. Mugimendu dotore, bizkor eta zaluko felidoa da; horrek sekulako bizkortasuna ematen dio, eta txintik atera gabe mugitzen denez, ezustean harrapatu ohi ditu ehiza-kiak. Ehizan dabilenean, distantzia luzeak egin ohi ditu gelditu ere

gin gabe, eta egokierak hala eskatuz gero, igerilari eta jauzkari bikaina izan daiteke. Harrapakinaren atzetik doalarik utzitako hanka-marken arabera kalkulatzen ahal izan denez, bost metrorainoko jauziak egin ditzake luzean Bengalako tigreak. Felidotza hau, halere, ez da zuhaitzetara igotzen. Premia larriren batek behaturik bakarrik ibiltzen da zuhaitz-enbor gainean, bat edo bat etzanda edota helmenean egokitzen bazaio. Nolanahi ere, enbor-azalak urratzeko joera du; horren lekuko, Bengalako tigreek eragindako ebakidurak aurkitu izan dituzte, lurretik bi metrora zeuden enborretan. Egundoriko edozein ordutan ikus daitekeen animalia izaki, ezin dezakegu har soil-soilik animalia gautartzat. Oro har, animaliak edatera biltzen diren tokietan burutzen ditu erasoaldiak, edota landa-bideetan zehar.





Tamaina: bere gorputzak (burua-rekin) 112-185 cm artean neurtzen du. Buztana 45-75 cm artean dago. Bere altuera, gurutzean 68-80 cm artean dago.

Pisua: arrek 90-120 kg artean pisatzen dute. Emeeek 60-90 kg artean pisatzen dute. Pisu handiena, 36-158 kg artean dago.

Habitata: habitat basotsuetan bizi da. Baita sabanetan, barrutiko iparraldeko tontorrean, basoberan eta basamortuan ere.

Banaketa: AEBko hego-mendebal-detik Argentinako iparralderaino.

JAGUARRA

(PANTHERA ONCA)



Mundu Berrian bizi den *Panthera* generoko kide bakarra da, han plibiohanetan, eta beste habitat arbolatsu batzuetan dago. Oso sabana irekiak sahiesten saiatu da, izan ere bere kolorazioa disruptiboa da (kolorazio disruptiboa animalia-aren gorputza inguruarekin nahasten duena da). Dena den, bere banaketaren iparraldeko aldean basoberetan eta basamortuetan ere sartzen da. Nahiz eta ez da gepardoa bezain azkarrak, jaguarra aparteko igokaria da. Dena den, lurzorua-aren gainean ehizatzen du, bere harrapakinaren ondoan jartzen da, -zelatan-azken jauzia eman arte -beste felido batzuek bezala-.

Bere harrapakinaren artean dauzkagu: arrainak, tapirrak, oreinak, kaimanak eta beste narrasti batzuk, agutiak, nagia eta lehorreko ohiturak dituzten hegaztiak. Baina garrantzitsuenak pekariak eta kapibarak dira. Batzuetan tximinoak ere ehizatzen ditu (nahiz eta hauek arinagoak izan). Bere harrapakina hil ondoren arrastatzen du leku lasai bateraino, eta han, luzamendutan ibili gabe, klaskatzen du. Animalia bakartia eta lurraldekoia da. Bere lurraldea 10-400 km² artean dabil, sexuaren arabera eta harrapakinaren kopuruaren arabera ere, izan ere, emeen lurraldea txikiagoa izan ohi da

(arrenaren erdia). Felido gehienek bezala txiza egiten markatzen dute eta mugatzen duten zuhaitzetan urradurak erabiltzen dituzte. Emea araldia dagoenean, bere lurraldea uzten du, batzuetan distantzia handia ibiltzen da arrarekin topatzeko. Arrak estaltzen du eta egun batzuk berarekin egoten da, oso gutxitan, urte oso bat. Emaldiak 93-110 egun artean dirau. Handik aurrera 1-4 kume artean jaio ohi dira, itsuak eta ahulak. Hamahiru egunetara begiak irekitzen dituzte. Bost edo sei hilabeko kumeei titia kentzen die amak. Jaguar gazteak amaren atzetik doaz bi urtetan, aldi horretan ehiza egiten ikasten dute. Gero beren bizitza bakartia egingo dute, baina beren garapena ez da amaitzen hiru edo lau urte arte, adina honekin heldutasun sexuala lortzen dute. Gehiegizko bizi-raupena gatiubaldian 20 urtekoa da eta egoera basatian hamabi. Pleistozenoaren amaierara arte, AEBetako hegoalde osoan bizi zen jaguarra, Floridan batez ere. XX. mendearen hasieran bizi ziren populazio guztiak desagertu ziren baina Mexikotik etorri ziren aleak sartzen jarraitzen zuten. Gaur egun Mexikon, Erdialdeko Amerikan, Brasilgo ekialdean, eta Uruguain ale gutxi daude (Argentinan iparraldeko probintzietan bakarrik dago). Jaguarren gainbeherak eta felido orbandu handien gainberak kausa berdina dute: jazarpena harraparia izateagatik, habitataren galzapena, eta ehiza bere larru ederragatik. Baina kausa nagusia deforestazioa da, eta abere-helburua denean, bere jazarpena su eta gar egiten da.

Hori leopardoarekin eta beste felido handi batzuekin gertatu zen bezala, jaguar-larruarentzako merkataritza-eskakizuna handia sortzen hasi zen -60ko hamarkadan zehar-. Brasilen adibidez, urtero 15.000 ale hitzen zituzten. Beste nazio batzuek ahal dituzten larru guztiak esportatzen zituzten, haien artean Bolivia, Kolonia, Mexiko, Paraguai eta Argentina aipa ditzakegu. Baina inportatzaile nagusia AEB zen, 1968.urtean 13.516 larru erosi zituen. Belice Cockcomb Basingo Bizitza

Basatiaren Santutegian, lurralde bakarra da non jaguarra zeharo babestua baitago, 1991ko azaroaren 11a, bere hedapena 30 aldiz gehitu zen, 40.000 hektareako lurraldera ailegatuz. Alan Rabinowitz, Wildlife Conservation Internationalen ikertzaileak urte batzuetan zehar Belicen jaguarrek ikasi zituen, Santutegiaren sorkuntza gomendatu zuen 1895.urtean, Erdialdeko Amerikan egoera basatian dagoen subespeziearen babesa ziurtatzeko. Hartutako neurriek ondorioak ematen hasi dute, eta UICN-ek bere azken Zerrenda Gorritik “kalteberaren etiketa” ken diezaike. Gaur egun espezie ez mehatxatua da, horregatik, bere biziraupena epe ertainera bere banaketa alde gehienetan ziurtuta dagoela pentsatzen da. Populazio osoa 50.000 ale ugaltzailer inguru da. Dena den, abeltzainek bere ekintzekin jarraitzen badituzte eta Amazonas ibaiko arroan (bere gaur egungo gordelekua) dagoen deforestazioa, denbora gutxi barru “espezie kalteberatza” berriro katalogatu beharko dugu.

Katu polit honek bere larruaren merkataritzagatik populazio gutxitua dauka. Gaur egun bakarrik mila bat kide dira eta desagertzen ari dira bere bizilekuekin batera. Zientzia bere biologia eta portaeraren alderdi asko ezagutu gabe geratu da. Felido handi guztien artean, jaguarra, fauna tropikalaren egiazko erregea, oso iheskorra da eta berari buruz jakiten den guztia zeharrezko metodoekin bilatuta izan da. Bere ohiturak, kide batzuei jarritako transmisoreei esker jakin da, eta eguneroko bizimodua oinatzak eta bere ehizien hondakinak ikasten jakin da.

Kolore eta pisuan (90-120 kg) leopardoak eta jaguarrek antza handia daukate, baina desberdinak dira izaeran, jaguarra itxura sendoagoarekin. Bere hankak labur eta gordinagoak dira, oinak handiagoak eta burua lodiagoa. Bestalde arosatxoak handiagok dira eta mota ilun bat osatzen dute erdian, bere mundu zaharreko anaian ez dena agertzen. Hegoamerikar ugaztun honek jario duen irudia izugarritzko indarrerakoa eta kemenakoa da, edertasun delikatuakoa baino gehiago. Leopardoarekin gertatzen den bezala, jaguar beltzarenak badaude ere zeren eta melanismoa sarritan ematen den espezie honetan. Jaguar beltzak, tropikal oihanetan epel basoetan baino kide gehiago egoten dira. Ikusi egin dira ere jaguar zuria, albinoak, izugarritzko edertasunaz. Dauden datu gutxiak egiazten dute oihan tropikaletan bizi diren jaguarrek belardietan bizi direnak baino txikiagoak direla, batzutan pisu erdiakoa. Hau izan daiteke jaguarrek belardietan epel basoetan baino errazago aurkitzen dutela ehizi handiagok, eta kumee ondo elikatuak neurri handiagok lortu daitezke. Txikia izatea, oihanetan bizi diren kideentzat abantaila bat izan



daiteke janari eta ehizia gutxiago behar izaten dutelako.

Igerilari eta (igonkari) gorakari nabarmen honek Erdialdeko Amerika eta Hegoamerikako landaretza oihanetan eta basoetan bizi egiten da. Karakterizatzen dioena beste katukien aparte, umel eta ur ondoko zonaldeekin elkartea da. Normalean ibaien arroetatik transladatzen dira eta distantzia handiak igeri egiten dute ibai ugaritsuenak zeharkatzeko. Ur ondoko zonaldeetan atseden hartzen dute eta egunabaretan enbor flotakorretan ikusiak izan dira. Eltxo eta beroaren alde egiteko denbora luzeaz egoten da murgilduta, burua ur kanpo edukitzen. Ibaietako arroak eta oihanak nahiago arren, kide batzuk Mexikoko erdiko goi-lautadetan bizi egiten dira ere. Altitudea ordean bere zabaltzetat muga bat da, jaguarra ez delako ondo moldatzen hotzarekin eta 1000. m-tik beherago egotendo, 2000 metro baino altitudetara gehiagotan kide batzuk ikusiak izan diren arren. Altitudetara hauek beste katuki amerikarra egoten da, puma, jaguarren zabalkunde alde osoan dagoena, altitudetara goragokoean. Jaguarra barrutiko ugaztuna da, bereziki arreske sasoiaren. Egutegia ehizara joan baino lehen soinu seinale bat jaulkitzen du lurraldea mugatzeko. Orroea, tximino eta txoriei mututzen die, tapireak eta kapibarak mugitu barik geratzen dira eta kaimanak isilka uretan sartzen dira. Honetaz baliatu dira ehizatariak eta jaguarren ahotza imitatuz

jaguarrek bere lurraldea defenditzera joaten direnean harrapatzea lortzen dute.

Arrak 30-170 km²-ko lurralde jabetzak dira, sarritan, lurralde hauek eme batzuen lurralde txikiagoekin eta beste ar lurraldeekin solapatzeko dira. Ehizarako lurraldea mugatzeko zutik jartzen da eta zuhaitzen enborra hatzaz markatzen du, hau atzazalak zorrozteko balio zaio ere. Honela kide txiki batek berak egiten dituen baino marka altuagoak aurkitzen dituenean ulertzen du berak baino kide handiagoei lurraldean dagoela eta borroka bilatu ordean, baztertzeko da. Hala ere lurralde komun batean bi jaguarrek topatzen direnean, orroak trukatzeko dituzte eta normalean ez dute borrokatzen. Kide batek bere lurraldearen zati bat 3-10 egunetara iragan egiten du eta gero beste ikustaldi bat arte abandonatzen du.



PÁSATE A

BILBAO WiFi+ 

La primera Red WiFi
Pública de Europa
con garantía de
seguridad que **te**
avisa si tus
dispositivos están
infectados y bloquea
el malware.



Bilbao
UDALA
AYUNTAMIENTO



Regístrate en
www.bilbaowifi.eus
y descubre nuestros consejos
de ciberseguridad.